



- **Artedrama Euskal Laborategia** Antzerkilarientzako formakuntza ikastaroak Aulestin
- **Koldo Ordozgoiti** Ibarretxeren *Geroa gurea da* liburuz
- **Kontzertuak tabernetan** Donostian murrizketa ugari ezartzen ari da Udala
- **Gaztetxeak** Donibane-Ziburu eta Kortxoenea, bi eredu ekintzaile
- **Eskola kirola** Denetik probatzearen onurak
- **Larrun** Suizidioa, azken tabua

LEOPOLD EYHARTS

astronauta

«Helduko da gizakia Lurretik kanpo biziko den eguna»



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO

Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuzana



• **NON ZER** •

2011ko apirilaren 24a, 2.274. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Ainhoa Etxaide:** «Instituzioetako agintariak txotxongilo hutsak dira». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Gaztetxeak.** Bi eredu, ilusio bera. UXUA LARRETXE / 5

Pertsonaia

- **Leopold Eyharts:** «Espazioaren esplorazioan 'Harriketarren' aroan gaude». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Eskola kirola eta kirol federatua.** Elkarrekin joan behar duten idia eta harria. AITOR MANTEROLA / 15

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** "Ze-neke! belaunaldia. BEÑAT SARASOLA / 20
- **Inside Job** European. MIKEL ZURBANO / 21
- **Hiruko txikian** Herrialde berdea. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Ipotxen matxinada.** ALAITZ VIVES / 22
- **Txandan** Patatak eta txapela. JOSU AMEZAGA / 22
- **Zirtak** Herio arratsean. JOSE INAZIO BASTERRETXE / 23
- **Bertso berriak** Korrikari jarriak. JOANES ETXEBARRIA / 24

Erdiko kaiera

- **ADEL.** Ideia gorpuztuen laborategia. OIER GUILLAN / 25
- Kontzertuak murrizteko mehatxua Donostian. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 28
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 31
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 32
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 33
- **Ezpalak** JON TORNER / 34
- **Abarrak** JON TORNER / 35
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Koldo Ordozgoiti:** «Legebiltzarrak ezin dio ezer ezarri Kongresuari, baina alderantziz ere ez, dio Ibarretxe». MIKEL ASURMENDI / 39
- **Gida-baimena.** Hizkuntz eskubideak atzera-martxan. UNAI BREA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Txernobylek zerbait ona utzi zigun: CRIIRAD taldea. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Enfasia.** JOSE IGNAZIO ANSORENA / 50

OHARRA

Aste Santuko oporrak direla-eta, datorren astean ez da ARGIA kaleratuko. Maiatzaren 8an itzuliko gara. Ordura arte.

“Instituzioetako agintariak txotxongilo hutsak dira”

Ainhoa Etxaide I
Gehiengo sindikalekoa

Maiatzaren 1a igandea tokatzen da, eta zer?

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Sindikatuak lan baldintzak primerakoak izango dira, ezta?

Eskaini ditzakegun onenak izan arren, txar-
rak dira. Ez duzu nahiko gure lan-baldintzak
sindikatuak langileei eskaini beharreko zerbi-
tuzuen aurretik jartzea, ezta?

Hara, XXI. mendeko lider sindikal handi bat!

Lasterketa luze honetan ezinbestekoa da
urratsak besteek zein nik neuk nekatu gabe
ematea. Horregatik, okerreza ez da erantzun
borobilen aurkitu arteko isiltasuna, erantzu-
nik eza baizik.

Egun bateko grebari “erantzun borobilen” dei- tzea ere...

Egun bateko grebak indar erakustaldiak dira,
alternatiba aldarrikatzeko egunak, bidean
urrats berriak ematekoak, baina ez dute tutik
balio biharamunean “eta orain zer?” galderari
erantzuteko gai ez bazara.

“Eta orain zer?”. Zuek beti kontra, ezta?

Eredu berriak eraikitzeak sistema zaharrak
krisian hondoratu behar dira, aldaketa beha-
rra nabarmentzeko. Gu ez gaude guztiaren
kontra, egiten ari direnaren aurka baizik.

Ai zuek, mundu justu baten aldeko idealistak...

Horren alde borrokatzeak prest daudenei
aukerak eta tresnak ematea da gure lana,
borrokatzeak prest ez daudenentzat ere gure
alternatiba baliagarria izango dela jakinik. Sis-

temaren prozesu eraldatzaile bat nahi dugu,
ez gizarte haustura bat.

Intereconomíakoentzat dena da Zapateroren errua. Zuentzat dena sistemarena.

Boterea gizartearen baliabideetatik kanpo
dago, esku gutxitan, inork ezagutzen ez
dituen guneetan, eta gizartearen bitartekoak
boterearen bitarteko bihurtu dira. Instituzio-
etako agintariak txotxongilo hutsak dira.

Medio askorentzat, txotxongiloak lan-istripue- tan hildakoak dira, ordea.

Lan-istripuak ez dira gizarte albiste bat, siste-
ma ekonomiko baten ondorioa baizik. Noiz
azalduko dute istripuak nola gertatu diren?
Noiz esango dute gehienak ekidin zitezkeela?
Alarma soziala piztu beharrean tragedietara
ohitu nahi gaituztela dirudi.

Utzidazu ezohiko albiste bat pentsatzen... Era- bateko batasun sindikala, adibidez?

Erabateko batasun sindikala aldaketak bultza-
tzen dituen sindikalgintzaren kontrakoa litzate-
ke. Zergatik eskatzen zaigu gehiengo sindikala-
ri bi sindikaturekin bat egitea, eta ez CCOO eta
UGTri gehiengo sindikalekin elkartzea?

Denborak dena sendatzen omen du, baina...

Ez dut sinesten mendetan luzatzen diren ardu-
retan, baina eraldaketa eta borroka nortasun
ikur bihurtzen direnez, hemen ez bada, beste
nonbaiten kapitalari adarra jotzen ibiliko naiz. ■

Gaztetxeak

Bi eredu, ilusio bera

Euskal Herrian ugariak bezain anitzak dira gaztetxeak. Bi proiektu oso ezberdin hautatu ditugu: Donibane Lohizuneko Donibane-Ziburu gaztetxea eta Donostiako Kortxoenea, gaztetxe eredu diferenteak bertatik bertara ezagutzeko asmoz.

UXUA LARRETXEA

Argazkiak: Dani Blanco



Donibane-Ziburu gaztetxeko kide dira lera Uria eta Odei Barroso.
Herriko Etxeak lekuz aldatu nahi du gaztetxea, erdigunetik aldentu.

LAPURDIN DAGO BATA, hogeitau urte egin ditu eta Herriko Etxeak du haren jabetza. Bestea Gipuzkoan dago, urtebete ere ez du oraindik eta eraikuntza enpresa batena da eraikina. Alta, desberdintasunak desberdintasun, bada biak berdintzen dituenik: gazteen konpromisoa, ilusioa eta lana.

Donibane-Ziburu: herriko eskolatik bizitzaren eskolara

Iera Uriak eta Odei Barrosok musika talde bateko partaide zirela izan zuten lehen hartumana Donibane-Ziburu gaztetxearekin. Taldearekin entseatzen zuten bertan, eta ordutik

lau urte igaro diren arren, lekuarekin duten harremana ez da eten. Orain ere gaztetxean izaten dira usu, ez musikari gisa, kide moduan baizik. Dena den, eurak —edo beren belaunaldikoak— ez dira gaztetxeko lehen partaideak, hogeitau urte hauetan gazte asko eta asko igaro baita bertatik. Inguruan, Sarako eta Itsasuko gaztetxeak dira soilik Donibane Lohizuneko bezain zaharrak.

Uriak hastapenen berri eman digu: “Herriko gazteak 1989 inguruan mugitzen hasi ziren gaztetxearen funtzioa beteko zuen leku baten bila. Hainbat saiakera egin zuten, eta azkenik, 1991n hona etorri ziren”. Okupatu-



riko eraikina Akotzeko Donibane-Ziburu eskola zaharra zen, erabat utzia zegoena. Barrosok azaldutakoaren arabera, gerora orduko gazteak Donibane Lohizuneko Herriko Etxearekin adostu zuten, hitzarmen bidez, lekua atxiki ahal izatea. Egundaino indarrean dago akordioa: “Lekua Donibane Lohizuneko Herriko Etxearena dela dio, eta hortaz, eskubide guztiak harenak direla eta gu okupa moduan gaudela hemen aldi baterako”. Zein da horren ondorioa? Gaztetxeko gazteek ez dutela batere eskubiderik tokiarekiko. Egun, hamabost kide dira eta burokrazia aldetik kultur elkarte estatusa dute.

Musikaren eta ideologia guztien bilgune

Donibane-Ziburu gaztetxea zerbaitengatik nabarmentzen bada, musikarengatik da. Entsegu gelan urte osoan hamar bat talde aritzen dira. Horren lekuko izan ginen gu, elkarriketa egitera bertaratu ginenean bateriak lehenik eta ondoren gitarra doinuek lagundurik aritu baikinenez hizketan. “Inguruan guk bakarrik proposatzen dugu horrelako zerbait; beste nonbait entsegu gela bat alokatu nahi izanez gero orduko 10 edo 20 euro ordaindu behar dira eta hemen urteko 30 euro baino ez dituzte ordaintzen”. Euren musika aurkezteko edo zabaltzeko parada ere badute taldeek ondoren gaztetxeko oholtzan. Musikarekin batera gaualdiak izaten dira Donibane-Ziburun, eta ordu bietan tabernak itxi ahala parranda bukatzeko herriko leku alternatiboa da gaur gaurkoz.

Bazkariak, afariak edota bertso saioak ere antolatzen dituzte Donibane Lohizuneko gazteek bertan. Gainera, aurten bertso eskola abiatu dute eta bederatzi bat gazte aritzen dira, Odei Barrosoren gidaritzapean, besteak

Hamar bat musika talde aritzen dira Donibane-Ziburuko entsegu gelan, urtean 30 euro ordainduta.

beste. Euskara eta frantses ikastaroak ere ematen dituzte eta zenbaitetan erakusketak antolatzen dira. Gaztetxea inguratzen duten hormetan ikus daitezkeen graffitiak ere bereizten dute Lapurdiko gaztetxea. “Euskal Herriko eta Frantziako artista ospetsu ugari aritu izan da horma hauetan beraien lanak egiten”, azaldu digu Uriak.

Elkarteekin ez ezik, bestelako gaztetxeekin eta oro har gazteekin ere komunikazioa badaukate, eta esaterako, duela gutxi Abadiñoko gaztetxeko kideen bisita ukan zuten. Uriak nabarmendu duenez, “horrelako hartu-emanak gaztetxe batean soilik bizi eta ezagutu ditzakezun gauzak dira”. Aipatzekoa da Lapurdiko gaztetxean ideologia eta pentsamolde ezberdinetako jendea biltzen dela, izan euskaldun, frantses edo ingeles. Barrosok gogorarazi duenez, “gaztetxeak biziki ikuspegi irekia dauka, eta gainera, beti izan da horrela”.

Udalak lekuz aldatu nahi du

Herriko Etxearekin duten harremana gero eta korapilatsuagoa da. Ika-miken abiapuntua duela bi urte Donibane-Ziburu gaztetxearen aldamenean egin zuten luxuzko jatetxea da, bi gazteek adierazi dutenez. “Horra doan jendeak eta hona datorrenak kanpotik ikusita bederen ez dauka zerikusirik, eta pentsa zer inpresio har dezaketen turistek hona datozelarik eta gaztetxea ikusten dutelarik”, dio Barrosok, herriko agintariek egiten duten guztia turistei begirakoa dela salatzearekin batera. Jatetxea eraikitzea eta arazoak hastea dena bat etorri zen. “Zurrunurru anitz badira hemen egin nahi dutenaren inguruan”. Horri, haren iritziz, gehitu behar zaio Donibaneko erdigunea gero eta gehiago hedatzen ari dela eta gaztetxea dagoeneko gertu geratzen dela erdigunetik. Horregatik, lekua agintarien nahientzat orban bihurtu dela baieztatu du Barrosok, eta kosta ahala kosta kanporatu nahi dituztela. Horren harira, iazko ekainean Herriko Etxekoek bilkurara deitu zituzten gazteak, eta gaztetxeak ez dituela erai-kin batek bete behar dituen arauak eta baldintzak betetzen esan zieten, eta horrenbestez, handik joan egin behar zutela. Hori bai, trukean beste leku bat jasoko zutela zin egin zieten. “Lokal hori hau baino galduago dago, Donibanetik Senperera bidean, eta gainera, 100 metro koadro ingurukoa da. Haiek diote guk gaur egun okupatuta daukagun azalera bera daukala, baina ez dute kontatzen parkinga, balkoia, eta abar. Zozotzat hartzen gaituzte!”, salatu dute. Gazteek ez dute leku aldaketa onartzen eta oraingo eraikinean egin beharreko konponketak burutzea galdegin diete Herriko Etxeari baldintzak bete asmoz, baina haiek ez ei dute horretarako borondaterik eta dirutza xahutzea litzatekeela erantzuten diete.

Donibane-Ziburu gaztetxekoek borrokatzeari ekin diote. Hasteko, egoera salatzekeo sinadurak biltzen hasi eta jada 1.000 inguru lortu dituzte. Horretaz gain, gaztetxetik igaro diren aurreko bizpahiru belaunaldikoekin txosten bat lantzen ari dira. Bertan, azken hogeitaz urteetan gaztetxean egin diren gauza guztiak biltzea dute xede. Azkenik, konponketen kostua benetan zenbatekoa izango litzatekeen argitzeko enpresa batzuekin kalkuluak egiten ari dira. “Gure nahia da konponketen kostuaren aurrekontua eta lokal berriarena konparatzea, argumentuak gure alde izateko”. Behin hiru gauza horiek amaituta, Herriko Etxeko agintariei aurkeztuko dizkiete. “Orduan ere ezezkoa jasotzen badugu, ulertuko dugu ez dela diru kontua bakarrik, tartean beste interes batzuk badaudela, eta orduan, zalaparta sortzen hasiko gara, prentsara joaz, herritarrei jakinaraziz”. Nolanahi, Donibane Lohizuneko agintariak saiatu dira lehenago ere; 1995ean zehazki, baina gaizki atera zitzaizen babes handia ukan zutelako.

Odei Barrosok argi dauka lekuak balio simboliko handia duela: “Lehen herriko eskola zen, eta duela hogeitaz urtetik hona herriko gazteen bilgune da, baina baita eskola ere: egunero eta bizitzaren eskola da guretzat”. Herriko Etxekoek ez omen dute ulertzen: “Euren pentsamolde materialistatik, leku berri bat ematea kristorena da”. Bertan sartu diren ordu guztiak borondatezko lanak eginenez, bertatik igaro diren belaunaldiak, jatorri ezberdineko jendea, musika taldeak, burutu diren ekimenak... Horiek denek balio erantsia ematen diote lekuari. Iera Uriak eta Odei Barrosok oso argi dute: “Gaztetxea ez da lekuz alda daitekeen elkarte bat”.

Kortxoenea: jaio berri den proiektu sendoa

Oraindik urtebete egin ez duen arren, dagoneko auzoko gazteen bilgune bilakatu da Donostiako Gros auzoan dagoen gaztetxea.



Ione Etxeberria eta Iker Zaldia, Gros auzoan duela gutxi zabaldutako gaztetxeko kideak.

Ilusioa eta lan egiten jarraitzeko grina antzematen zaie Iker Zaldia eta Ione Etxeberria kideei. “Gaztetxea izan aurretik auzoko gazteok ez genuen biltzeko eta nahi genituen gauzak egiteko leku fisikorik. Horri erantzun asmoz batzuen ekimenez mugimendu bat sortu zen, eta azkenean, hau dena lortu dugu”, diosku Zalduak.



Hala Bedi taberna, Kutxi, 98.
halabelarri@halabedi.org
www.halabedi.org





Okupaturiko eraikina auzoko Zurriola Ikastolak antzerki ikastaroetara bideratu izan du urtetan, baina eraikuntzako enpresa bati saldu zioten orain bi urte, gutxi gorabehera. Libre zegoela eta leku egokia zela ikusirik, okupatzea erabaki zuten gazteek; helburua euren egitasmoa bertan sustraitzea eta aurrera ateratzea da. Etxeberrriak gaineratu du: “Hutsik egon den tarte horretan jendea barrura sartu izan da eta bizpahiru aldiz erre ere egin da eraikina; hortaz, gu bertan sartuta arazo horiek saihestu genitzakeela jabetu ginen, gaztetxe bat sortzeaz gain”. Esan eta egin; eraikina okupatzearekin batera ekin zioten iazko ekainean gaztetxea sortzeari eta denbora tarte txikian proiektu oso bat abiarazte lortu dute, konpromisoa eta gogoia bidelagun.

“Hirian gaztetxe bat egotea beharrezkoa zen, autogestio bidez egituratuta egongo zen gune bat, ekintzak antolatuko zituen. Eta hori dena gazteok kudeatuta, ez Udalak”, baieztatu du Zalduak. “Horri gehituko nioke proiektua erabat irekia dela eta edozer proposatzeko aukera ematen duela, norberaren interesen arabera”, gehitu du Etxeberriak. Hain zuzen, proposamen horien kariatara ekimen ugari jarri dituzte martxan; horien artean, bertso

Kortxoeneako asanbladak irekiak dira. Nahi duen oro hurrera daiteke eta proposamenak egin ditzake.

eskola. Ostiraletan, musika trukaketa egiteko ere elkartzen dira: “Musika tresna bat jotzen dakienak besteei erakusten die, edota zaleen artean elkarri erakusten diote”.

Musikaz eta bertsolaritzaz gain, bestelako jarduerak ere badute tokirik Kortxoenean. “Antzerki talde batek igandero entseguak egiten ditu hemen eta breakdance dantzatzen duten batzuk ere etortzen dira noizean behin”. Aipaturikoak jarduera zehatzak badi-ra ere, bestelako ekimenak ere abiarazi dituzte, hala nola, ordenagailuak erabiltzeko Wifi gunea, edota doako denda. Zalduak azaldu digunez, azken horren xedea etxean erabili gabe dituzten gauzak besteren batek aprobetxatzea da. “Ez da zehatz-mehatz elkartruketa, nahi duenak hartzen du eta nahi duenak utzi, besterik gabe”.

Gazteek, dena den, oso argi utzi nahi izan dute gaztetxeko ateak zabalik daudela nahi duen ororentzat, eta hori errealtate egin asmoz tailerrak, ikuskizunak eta hitzaldiak antolatzen dituzte. Jendeari Kortxoenea proiektuaren berri emateko –edota antolatu dituzten ekitaldiak jakinarazteko–, webgunea jarri zuten martxan (www.grosekoga.net). Etxeberriak dioenez, bizilagunen gutunontzietan ere esku

Okupazio mugimenduaren sorrera

Asanblada autogestionatuek –Gazte Asanbladak, gehienbat– herri kultura garatzeko gunea da gaztetxea, oro har okupatua izaten dena. Euskal Herrian okupazio mugimendua 1970eko hamarkada amaieran sortu zen Orereta, Lezo eta inguruetan (Gipuzkoa). Gaur egun, 100 baino gehiago dira Euskal Herrian, eta herri gutxi dira inoiz gaztetxerik izan ez dutenak. Ehuneko handi batean okupatuak badira ere, herri batzuetan udalak

eman die lokala gazteei, eta hain zuzen hori zen mugimenduaren aldarrikapena hastapenetan.

Euskal Herriaz harago, okupa mugimendua Erresuma Batuan jaio zen, 60 eta 70eko hamarkadetan, kontrakultura talde batzuetako kideak hutsik zeuden etxebizitzetan bizitzen hasi zirenean. Partaide gehienak gazteak eta baliabide gutxiko pertsonak ziren. Dinamika horrek Europako beste herrialdeetan ere izan zuen eragina.

orriak banatu izan dituzte, “modu horretara zer egiten ari garen jakiten dute, zenbaitek izan ditzaketen aurreiritziei aurre egiten diegu, eta beraiek ere parte hartu dezaketela jakinarazten diegu”. Izan ere, bizilagunekin bizikidetza ona nahi dute eta momentuz behintzat lortu dutela dirudi. “Saiatzen gara ordutegiak errespetatzen eta zarata handiegirik ez ateratzen”.

Konposta baratzerako

Bizikletak konpontzeko tailerra dute Kortxoenean, baita oilategia eta baratzea ere. Hain justu, baratzerako erabiltzen dute lortzen duten konposta. Hernaniko atez ateko zabor bilketa kudeatzen duten arduradunekin hartu-emanetan jarri ziren, eta konposta egiteko prozesuaren inguruko xehetasunei buruzko ikastaroa antolatu zuten gaztetxean. Horri esker, gaur egun euren zaborra konposta lortzeko erabiltzen dute. “Auzoko bizilagunei ere eskaini genien zaborra gaztetzera ekartzeko aukera”, azaldu du Zalduak.

Aipaturiko egitasmoez gain, gaztetzeko kideek aurrera begiratzen dute eta etengabe proiektu berriei heltzen diete, horien artean dago zarata gela. “Entsegu lokal gisa, eta maketa edo disko grabazioak egiteko erabiliko dugu”. Kontzertuetarako aretoa erabat amaitzea eta rokodromo bat egitea ere aurreikusten dute.

Alabaina, hori guztia aurrera ateratzeko nahitaezkoak dira egitura sendoa eta koordinazio lana, eta horretarako antolatzen dituzte ostiralero asanbladak. Hainbat konturi buruzko erabakiak hartzen dituzte; esaterako, auzo lana egin behar al den, eta hala izanez gero, noiz egingo duten eta zertarako. Asanbladak, dena den, irekiak dira, nahi duen oro hurrera daiteke eta proposamenak egin ditzake. Kortxoenearen egiturak badu

“Ideologia eta pentsamolde ezberdineko jendea biltzen da, izan euskaldun, frantses edo ingeles”

ODEI BARROSO, DONIBANE-ZIBURU

beste adar bat: esparru jakinetara bideraturiko taldeak dituzte: diru-zaintza, proiektuak, ikus-kizunak, komunikazioa eta politika. Horiek dira gaur gaurkoz martxan diren taldeak, eta horietan, ideiak eta proposamenak lantzen dituzte, gero asanbladara eramateko eta gauzatu edo ez erabakitzeko.

Urtebete beteko du aurki Kortxoeneak, eta denbora gutxi igaro den arren, proiektu horren parte diren gazteentzat orain arteko bidea oparoa izan da eta aurrerantzean ere halakoxea izateko lanean ari dira, pozik eta itxaropentsu. Hala ere, bada euren ilusioari itzal egiten dion mamu bat: handik kanporatuak izateko arriskua. Izan ere, arestian aipatu bezala Kortxoenea legalki erai-kuntza enpresa batena da, eta etxebizitzak egin nahi ditu toki horretan. Ez dakite zehazki noiz hasiko diren lanak, baina bitarte horretan, denbora ahalik eta gehien aprobetxatu behar dutela argi daukate.

Orain arte Kortxoeneak eman diena laburbilduz amaitu dute elkarriketa bi gazteek. “Auzoko belaunaldi ezberdinak biltzeko leku bat eman dit; hona etor zaitezke, eta nahiz eta zure betiko lagunak ez egon, beste jende batekin egoten zara”, dio Zalduak. Gauza asko egiteko ateak zabaltzen dituela ere gehitu du. Etxeberriak elkarlanaren eta elkarbanatzearen balioak jarri ditu mahai gainean: “Ilusio handia egiten dit ikusteak denak elkarrekin eta batera arituta gauza oso politak atera ditzakegula aurrera, ez maila pertsonalean, baizik eta era kolektiboa. Besteek eman dezaketena jasotzen duzu eta zuk ahal duzuna ematen duzu”. Hitz horiexek ezin egokiago laburbiltzen dute Groseko gazte hauei Kortxoeneak eman diena. Eta egia esan, ez da gutxi. ■

Antzerki eta breakdance taldea, bizikletak konpontzeko tailerra, oilategia, baratzea... ditu Kortxoeneak. Zarata gela, kontzertu aretoa eta rokodromoa egitea ere aurreikusten dute

eco FESTES

Jaietarako bitarteko ekologikoak!

www.ecofestes.com
93.837.15.48

ECO-30 ECO-50 ECO-60 ECO-100

Leopold Eyharts

«Espazioaren esplorazioan 'Harriketarren' aroan gaude»

Imajinatu al duzue inoiz satelitea astronautari galdezka?

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Astronauta... Umetako ametsa dirudi.

Astronautok ume handi bat daramagu barruan. Biarritzeko haurtzaro zoriontsu hartatik, 10-12 urteko begiekin, estatubatuarrek ilargian pausatzen ikusi zituen ume hura bizi-bizirik dago nigan. Hortxe ernatu zitzaidan lanbide honekiko harra, eta astronauta izateko aukerak urriak zirela jakin arren, ikasketetan zein ibilbide militarrean beti izan dut asmo hori buruan iltzatuta. Armadako eliteko pilotua nintzen, eta jarraipen logikotzat neukan espaziorako jauzia. Bizitzaren une batean edo bestean, gizaki orok izaten du atmosferatik jalgi eta Lurraren inguruan itzuli-mitzulika ibiltzeko ametsa. Gure lana ordea, ikuspegi magiko eta fantasioso horretatik askoz harago doa. Ikerkuntza txertatuta daramaten aktibitate teknikoetan murgilduta bizi gara. Ikerketa zientifikoaren garapena dugu xede. Batzuetan, zientzia desberdinetako arlo fisiologikoen esperimientuetako subjektuak izan gaitzke, bestetan operadore hutsak gara. Zailtasun izugarriko lanak dira, zehatz eta taxuz egin beharrekoak, hutsegin ezinak.

Zertan datza astronautaren egunerokoa?

Lurrean gaudelarik, biziki aldakorra da. Misio bat agindu eta espaziora bidaiara programatzen digutenean entrenamenduak areagotzen dira. Hegaldia hurbildu ahala, entrenamendu fase oro fintzen joaten gara, misioaren alderdi guztiei buruzko etengabeko formakuntzan azken hari muturreraino sakonduz. Misiorik ez daukagunean, taigabeko aitzinamenduen xerka dabilten inge-

niariekin kolaboratzen dugu, gure esperientzia eta lan-moldeak ekarriz. Astronauta batek ulertu behar du kate luze bateko katebegi estrategikoa dela. Etengabeko frogak eta testak gaitzitu behar ditu, beti ibili behar du goian gauzak nahi-erara egiteko gai dela erakusten. Izan ere, Lurrean esku artean darabilgun sistema itzela izan daiteke, baina behin espaziora igota ez bagara gai sistema hori instalatu, martxan jarri eta ondo funtzionatzen duela konprobatzeko, kate guztia eteten da. Urteetan luzatzen joan den kateak zentzu guztia galtzen du. Gurean, akatsak barkaezinak dira.

Ez al gara zientziarekiko geroz eta interes gutxiago duen gizartean bizi?

Bai eta ez. Astronauta gisa, egindakoa erakustea dagokigunean, begi-bistakoa izaten da jendearen arreta eta lilura. Hori hala, egia da, Europan batez ere, duda-muda anitz dagoela espazio ikerkuntzan inbertitzeko. Beste gai batzuetan bezala, hemen ere gizartearen interesa eta politikari eta inber-

Nortasun agiria

Biarritzen sortu zen 1957ko apirilaren 28an. Frantziako armadako eliteko hegazkin pilotua izan zen lehenik, eta Europar Espazio Agentziako astronauta da egun. Birritan izan da orbitan, eta bera izan zen Nazioarteko Estazioan dagoen Columbus laborategian sartzen lehena.





titzaileen eskuzabaltasuna deskonektatuta daude, ahalak eskas ditugula esatea erlatiboan den arren, argi baitago borondate politikoan menpe gaudela. Esaterako, Europako Espazio Agentziak Nazioarteko Estazioaren aurrekontuaren %8a baizik ez du bere egiten. Estatubatuarrak eta errusiarrek askoz gehiago inbertitzen dute, baita japoniarrek ere. Europak baditu partaide esangratsuagoa izateko medioak, baina ez du beste munduko interesik ageri, eta ondorioz, sistemaren muinetik oso urrun gaude. Espero dut geroan garatuko ditugun asmoak ezinbestekoak izatea espazioko ikerketan. Horrek soilik kokatuko gaitu posizio estrategiko batean. Ez daukagu besterik, sosaren gabezia talentuarekin estaltzera behartuta gaude.

Posible da hain interes politiko desberdinak dituzten estatuen arteko kooperazio osasuntsua?

Nazioarteko Estazioaren adibidea eredugarria da horretan. Teknikoki zein zientifikoki arrakastatsua izateaz gain, kooperazioaren sinbolo bihurtu da. 1998an hasitako eraikuntza aurre bururatuko da, eta tarte horretan ez da estatuen arteko inolako arazorik sortu, ez eraikuntzari ez erabilerari dagokionean. Partaide guztiek bete dituzte hitzartutako konpromisoak eta hastapeneko dudak denborak isildu ditu. Geroari begira, lehen harri sendoa izan daiteke, denak ohartu baitira etorkizuna estatuen arteko koope-

razioan oinarritzen dela. Esaterako, hurrengo hamarkadetarako diseinatzeko ari diren egitasmo guztiak nazioarteko konferentzietan zehazten ari dira, eta bukatu da helburura auzokoa baino lehenago iristeko grina lehiakor eta politiko hori. Horrek ez du esan nahi kooperazioaren barruan bakoitzak bere tokia egin eta gorde nahi ez duenik. Denek izan nahi dute rol estrategiko bat, baina gaur egun, ez dugu orbitaz haragoko esplorazio lanetan bakarrik abiatuko den herrialderik. Nazioarteko Estazioko partaideok bat eginik irudikatzen dugu geroa.

Zer da espazioan bilatzen duguna?

Astronautok denetik xerkatzen dugu. Espazioan bizi, bidaiatu eta lan egiteko medioak garatzea dugu xede. Espazioak eskaintzen dituen ingurumen baldintza harrigarriak ikerketak parametro eksklusiboetan gauzatzea ahalbideratzen dute. Noiz ez dakit, seguru aski uste duguna baino askoz beranduago, baina helduko da gizakia Lurra ez den beste ingurune batean biziko den eguna. Gurea ez da alta orain mende batzuk Ameriketara mundu berria eraikitzen joatea, hori baino askoz konplexuagoa da. Ez dugu ahanzi behar hemendik urte askotara eguzki sistemaren esplorazioa deituko denaren lehen katebegiak garelako. Espazioaren esplorazioan 'Harriketarren' aroan gaude. Lurraren orbitan gabiltza oraindik, eta ditugun medioak izugarriak izanik ere, arkaiko bezain errudi-

mentarioak dira eguzki sistemaren eskalan neurtuz gero. Esaterako, ez daukagu Lurra-
ren orbitaz kanpo edo espazioaren sakone-
nera errazki bidaiatzeko modurik. Hastape-
neko ilusioak bizi ditugu eta hastapeneko
ilusioek bizi gaituzte.

Nola ikusten da Lurra espaziotik?

Aski ikusmira harrigarria da, bakana. Atmosferaz kanpo gaude, Lurraren itzulua ordu eta erdiz egiten dugu, hama-
bost aldiz ematen diogu itzulua egunero, hamabost aldiz ikus-
ten dugu eguna argitzen, hamabost aldiz gautzen, 2.500 kilometroko horizontea besa-
ratu dezakegu... Izugarria da.

Hala ere, azaleko ikuspuntua da nirea, eta ilargira iritsi zirenek oso bestelako ikusmira deskribatuko lizukete, Lurra euren espazio-ontziko leihoan kabitzera iritsi zirelako. Egoera hori bizi duzunean une izugarri eta hunkigarritzat daukazu, baina era berean, etengabe zabiltza urrunago joanez gero zer ikusiko zenukeen irudikatzen. Agian, heldu-ko da unea joan eta joan, Lurra ikusiko ez duguna. Horrek dena aldatuko luke, bai bisualki, eta bai psikologikoki. Gaur egun, orbitan egonik ere, Lurra oso presente dago, bertatik oso gertu zaudenaren sentsazioa daukazu, ez daukazu urrunago joateak ekarriko lukeen bakardade eta galbidezko itolarririk. Oraindik orain, kontinenteak minutu batzuetan zeharkatu edo negutik udara zenbait segundotan pasatzea irudi-zen zaizu harrigarri eta magikoa.

Zergatik desagertzen da magia gizakiaren begietatik behin helburuak beteta? Ilargiari askoz gehiago begiratzen zitzaien bertara heldu aurretik.

Gizartearen begirada da hori. Ilargian egon zirenak elkarriketatuko bazenitu kontura-

"Nazioarteko Estaziorako europar bakoitzeko euro bat gastatu dugu urteko. Asko edo gutxi den bakoitzak pentsa dezala, baina ez dira gutxi dirutza handiagoak modu lotsagabeagoan gastatzen dituzten arloak"

tuko zinateke errepikatu nahiko luketen abentura zoragarria dela beraientzat, eta seguru aski, beste inork ez bezala eta beste inork baino gehiago begiratzen diotela ilar-
giari. Espazioko edozein proiektutan parte

hartzten duenari arrasto emo-
zionalak geratzen zaizkio beti-
ko. Hain dira une intentso,
motibagarri eta pasioz beteak.
Alabaina, egia da aktualitatea
xurgatzaile bezain zapaltzailea
dela, notiziak datozen bezala
doazela, eta behin joanda,
inork gutxi oroitzen dituela.
Baina horretan ari garenok
badakigu zenbat kostatzen
diren gauzak, zenbateko ahale-
gina eskatzen duten, eta gure-

tzat ez dute garrantzirik galtzen. Alderant-
ziz. Beti dugu miresmen puntu bat
iraganarekiko, eta horri esker mantentzen
dugu geroan lortu daitekeenarekiko ilusio
magiko hori. Ez gara nekatzen, ase ezinak
gara.

**Baina hedabideen interesa pizteko ez al zau-
dete "mirariak" gauzatzen kondenatuta?
Zertan baldintzatzen du horrek zuen lana?**

Ahaleginak eta bi egiten ditugu gure lana
zabaltzeko, baina egia da gurea ez dela egu-
nero albistegietan agertzen den gai bat. Ez
gaitezen engaina, historian mugarria izango
den ez-ohiko gertakari batekin edo istripu
lazgarriekin baizik ez gara titularretan atera-
tzen. Pena da, prentsaren interes ezak zeri-
kusi zuzena baitu gure aktibitateen finan-
tzaketan. Apoloren garaian nola, medioetan
eguneroko presentzia izango bagenu, politi-
kariak beste bitarteko batzuk eskainiko liz-
kigukete. Gertatzen dena da gure proiektu-
ak hamar-hogei urterakoak izaten direla
eta ez dago hain epe-luzerako ikuspegi poli-
tiko eta ekonomikorik egingo duenik. Poli-
tikariei kapitalizatu dezaketena baizik ez



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Zabalgune Plaza, 5
48009 Bilbao

☎ 94 423 1500

Faxa: 94 424 3947

eudel@eudel.net

www.eudel.net



OFF THE RECORD

Orbitan

Negozioak egin berri dituen enpresaria, herrira datorren ikaslea, presoa bisitatu berri duen senidea, bilera nazionala izan duen ordezkari sindikala, turista holandesa, elkarriketa bat egitetik datozen kazetaria eta argazkilaria... Bakoitza doa bere orbitan Paristik Hendaiarako trenean. Bordelen trenaren hiru laurdenak husturik, txikitu egiten da orbita hori, eta behin Hendaiara iritsirik, handiak dira norbere orbitan dabilen jendea gurutzatzeko aukerak. Gu pozaren orbitan gatoz, ostera. Lurterra iruditu zaigu astronauta, gertukoa urrutietan ohi-tutakoa. Ederra da euskalduna izateak Parisen ere gauzak erraztu ditzakeela sentitzea.

zaie interesatzen, eta krisi garaiotan, aitzakiek diz-diz egiten diete hortzetan. Pena da, ez dugulako neurritz kanpoko dirutzarik behar, eta orainaldian itota egon arren, arnasa geroan inbertitzea datzalako. Azken hamar urteotan, Nazioarteko Estaziorako europar biztanle bakoitzeko euro bat gastatu dugu urteko. Asko edo gutxi den bakoitzak pentsa dezala, baina ez dira gutxi dirutza handiagoak modu lotsagabeagoan gastatzen dituzten arloak. Sorgin-gurpil bat da dena, eta nekeza da gurpilari norabidea aldatu eta nahi duzun tokira eramatea. Saiatu zaitezke zure herrialdeko politikariari beste herrialdeetan zer egitera doazen azaltzen, eta ez dira gutxi atzean ez gelditzeagatik gurdira igo nahi dutenak, baina gurea bisio lan bat da, oso aurretiaz landu behar dira asmoak, eta anitzetan, politikariak konbentzitzen dituzunerako beranduegi da.

Konbentzitu behar ez direnak, espaziora joateagatik dirutzak ordaintzeko prest dauden aberaskiloak dira. Zer pentsatua ematen dizute?

Hastapenean, jokoz kanpo harrapatzen zaitu albisteak, baina aztertu behar dena da errusiarrek zergatik zabaltu dizkieten euren espazio-ontziko atek ordaintzeko prest daudenei. Errusiarren gastu industrialak gureak baino askoz apalagoak dira, eta dirutza horiek jartzeko prest dagoen turistaren inbertsioa guretat itsasoan tanta bat litzatekeen arren, tartaren zati esanguratsua da errusiarrentzako. Horrek 90eko hamarkadan izan dituzten zailtasun guztiak atzean utzi eta puntaren puntan mantentzeko aukera eman die. Horretaz gain, eta

"Orbitan egonik ere, Lurra oso presente dago. Ez daukagu urrunago joateak ekarriko lukeen bakardade eta galbidezko itolarririk"

notizia irakurtzean hala dirudien arren, garbi gera bedi aberaskilo horiek ez direla zoro kapritxoso batzuk edo jet-setaren ohiko pertsonaiak. Ez, oinarri zientifiko bat daukan jendea da, oso motibatua, eta behin espaziora joanda, bere ahaleen araberrako esperimentuak egiten dituen. Joera horren jarraipena zail ikusten dut, ordea. Hurrengo urteetako hegaldi guztiak zientifikoentzako gordeta daude, errusiarrek ezingo dute misio horiek saltzen segi, eta kostuak gora egitera, litekeena da aberatsenek ere ezin ordaindu ahal izatea.

Zu bi aldiz izan zara espazioan. Itzultzeko asmorik bai?

Lehen niotsun gisan, Europak parte-hartze aski txikia du Nazioarteko Estazioan, eta gure esku dauden hegaldi kopuruak horren araberrakoak dira. Gainera, oraintsu, sei astronauta berri errekrutatu ditugu eta lehentasuna daukate. Horrek esan nahi du, hurrengo sei hegaldietan berez ez zaidala tokatzen, eta horrek 2020ra garamatzanez, printzipioz espaziora itzuli gabe erretiratu-ko naizela. Baina nork daki, astronauten korpus aktiboan nago, eta edozein unetan egokitzen ahal zait misio bat. Gaur egun, Lurretik hegaldien jarraipena egiten dut, eta gerora begirako proiektuen diseinuan burubelarri inplikatur nago. Ez naiz nire zor-teaz pleinitzen, bi misio zoragarri izan ditut, Columbus Nazioarteko Estazioko europar modulua instalatu eta inauguratzeko ohore izugarria, eta gutxi gehiago nire ametsak bete ditut. Horrek ez du esan nahi itzuli nahi ez dudarik, baina badakit Lurretik ere badagoela zeregina eta geroa lantzeko modua. ■

• Eskola kirola eta kirol federatua •

Elkarrekin joan behar duten idia eta harria

Kirol ugari eta kirola egiteko modu asko dago. Modu guztiak eta espezialitate denak uztartzea ez da erraza, baina ahalegin horretara bideratuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko eskola kirolaren eredua.

Testua eta argazkiak:

AITOR MANTEROLA

2008AN onartu zuten eskola kirola: adostasuna egon zen kirol eragile, federazio, eskola eta administrazioaren artean. Desadostasun handienak Gipuzkoan egon ziren. Ikastetxeak eta Foru Aldundia alde batetik, eta hainbat federazio bestetik; futbol federazioa, batez ere.

Eskola kirolarekin kirola egitea sustatu nahi dutela azaldu digu Iñaki Ugarteburu Aldundiko Kirol zuzendariak, ondorengo oinarriak ardatz harturik: “Kirol aniztasuna da ezaugarri nagusia, eta ez dago soilik lehiaketara bideratua. Hainbat modalitate ezagutzeko aukera eman nahi zaie haurrei, ondoren aukeratu ahal izan dezaten”. Futbol federazioko arduradunen iritziz, eredua erreferentea da, eta berritzailea, baina era berean futbolari kalte egiten diola argi dute: “Adin batzuetan desagerrarazi egin du futbola. Benjaminen eta alebinen kasuan, gure kirolean aritzeko dituzten orduak ez dira nahikoa futbolean

Zumaian futbolean, eskola kiroleko orduetan.

jokatzen ikasteko. Ez da ahaztu behar hanekin jokatzen dela, eta gorputz atal hori dela erabiltzen zailena. Horregatik, ordu asko sartu behar dira”.

Duela 20 urte zegoen ereduarekin, nahiko modu askean jokatzen zuen kirol bakoitzak. Denborarekin ikusi da eredu horrek partaidetza bai, baina teknifikazio maila egokia ez zuela behar adina bermatzen, eta horregatik etorri zen ondoren egokitzapena. Eskola kirola da egokitzapen horren zutabea. Aldekoen hitzetan, kirola egiteko zaletasuna sustatzen du haurrengan, eta gero askatasun osoa ematen die kirol federatuan aritzeko. Ugarteburuk emandako datuen arabera, 40 modalitate baino gehiago eskaintzen ditu eskola kirolak eta partaidetza altua dago; benjamin eta alebinetan %70-80ko partaidetza lortu da.

Modalitate kopuru handia kontuan hartuta, denbora eta antolaketa egokia behar dira



horri guztiari lekua egiteko. Horri lotuta daude futbol federaziokoek kritikak: “Guk proposatzen dugu eskola kirola eskolako orduetan egitea, eta ez horietatik kanpo, orain egiten den bezala. Hartara, asteburuak libre izango lituzkete gustuko duten kirola egiteko. Edo bestela, eskola kirola eta kirol federatua uztartzeko, haurrek egin dezatela eskola kirola larunbatetan, eta federatua igandetan, gustuko duten kirolean”.

Gazteengan kirola ez egiteko joera gero eta handiagoa dela diote federaziokoek, eta hori aldatu egingo litzatekeela beren proposamenekin: “Sendagileek proposatzen dute egunean ordubete egin behar dela kirola, eta orain, ordutegi banaketa horrekin urruti gabiltza hortik”. Ugarteburuk beste gabezia bat aipatu du: “Monitoreen prestakuntza hobetu behar dugu, eta ari gara horretan. Hiru diputazioen artean, ikastaroak eskainiko ditugu, eta laster hasiko gara”. Beste hutsuneren baten berri ere eman du: “Kirolarien babesaren inguruan, arauak ez du baimentzen kirolari gazteak beste lurralde batek fitxatzea 16 urte bete arte. Eta gai honekin adibidez arazoak izaten ari dira”. Ohiko bihurtzen ari baitira halako kasuak, eta gehienetan, futboleant gertatzen dira. Horrek esan nahi du 16 urtetik beherako gazte horiek futboleant baino ez dutela jarduten, kasu honetan bere klubarekin, eta geroz eta adin txikiagoarekin fitxatzen dituzte haurrak. Federaziokoek iritziz, “eredu berriarekin lehen uzten ez zitzaizkigun gauza batzuk egin ditzakegu; esaterako, benjaminetan futboleko eskolak sortzea, eta alebinak futbol federatua jardutea. Baina ez da nahikoa, aurrerapena den arren”.

Lehiakortasuna

Hitza entzun eta kirol federatua etorri ohi zaigu gogora. Lehiaketan oinarritzen dira, puntuak banatzen dira partidetan, puntuak arabera sailkapenak osatzen dira... Baina

Pilota

Kirol federazioen artean badira eskola kirolaren ereduarekin bat egiten dutenak. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa, esaterako. Juan Carlos Etxeberria zuzendari teknikariaren arabera, “gure iritzia ona da, adin txikietan kirol aniztasuna praktikatzearen alde gaude, aberasgarria baita haurren garapen motorerako”. Moldatu egin dira eredura, hutsuneak dituela onartu arren. Pilota federazioak eskola kirolaren baitako hiru ibilbideak jorratzen ditu: partaidetza (LH 3tik aurrera), errendimendua (LH 6tik aurrera) eta talentudunak.

Uztartu al daitezke lehiakortasuna eta eskola kirola? Iñaki Ugarteburu baiezkotan da: “Bere neurrian ona eta aproposa da, motibagarria, baina ez du helburu bakarria izan behar, baliabidea baizik”

eskola kirolean ere antzeko antolaketa dago sarri. Uztartu al daitezke lehiakortasuna eta eskola kirola? Ugarteburu baiezkotan da: “Lehiaketarik gabe ez dago kirolik, jarduera edota ariketa fisikoa bai, baina kirolik ez. Dena den, lehiaketa, bere neurrian ona eta aproposa da, motibagarria, baina ez du horrek helburu bakarria izan behar, baliabidea baizik. Beste arlo asko ere baditu eskola kirolak: sustapen kanpainak, ikaskuntzako eta aisialdiko jarduerak, eta abar. Lehiaketa baino askoz gehiago da”. Argi esan du noren ardura den lehiakortasunari neurria hartzea:

“Entrenatzaile, irakasle eta gurasoen lana da zein neurritan baloratu hobekuntza, jarrera eta emaitzak”.

Gurasoak kezka iturri dira zenbaitetan, neurritz kanpoko jarrera izaten duenik badagoe-lako eskola kirolean. Hala dio Kirol zuzendariak: “Gai honekin ere arduratuak gaude, guraso batzuen jarrera ez delako batere egokia, baina noren ardura da? Guztiona, gu eskola kirolaren bidez balore positiboak transmititzen saiatzen gara, eta hainbat arlo arautzen ditugu, baina ikusleen portaera kontrolatzea oso zaila da. Denon artean aldatu behar ditugu jarrera desegokiak”.

Ia-ia erabateko lehia, kanpotik begiratuta behintzat, futboleant dago, kirol federatua. Haurren mailetan ere irabaztea lehenesten da formakuntzaren aurretik. Ondorioz, haurrak ume-umetatik hasten dira lehia bizian. Gerta dakieke lehenago aspertzea ere, eta kirol federatua uztea. Futbol federazioan onartzen dute badela adin tarte bat gazteek kirol federatua egiteari uzten diotena, baina ez dute uste lehiakortasun neurritz kanpoko denik arrazoi bakarra: “Gazte mailatik helduetara igarotzean uzten dute futbola batzuek. Unibertsitateko ikasketekin hasten dira, eta orduan bukatzen zaie kirol federatuko etapa. Askok eskatzen zaie, eta ikusten dutenean ez daukatela aukerarik kirol mailan gora igotzeko, beste jarduera ‘lasaiago’ batzuetan hasten dira: enpresen arteko 7ko futboleko txapelketetan, adibidez”.

Adin horretakoek kirola egiten jarraitzea ez da helburu makala. Ez eskola kirolaren ereduaren aldekoentzat, ez kirol federatua lehenesten dutenentzat. Bien ardura da, biei dagokie lan egitea. Azken batean, elkarren osagarri izan behar dute biek. Hala uste du Iñaki Ugarteburuk: “Eskola kirolak harrobia, lana eta hainbat baliabide ematen dizkio kirol federatuari, eta kirol federatutik ezinbesteko laguntza tekniko eskaintzen diote eskola kirolari”.



Luis Mari Zulaika

«Kirola goi errendimendura baino ez bada bideratzen, gaizki goaz»

Heziketa Fisikoan doktorea eta eskola kirolaren sustatzaileetako bat da Zulaika zarautzarra. Egungo eredia ondo ezagutzen du, alderdi onak eta gabeziak.

Eskola kirolaren eredu berria duela hiru urte ezarri zen, aurrekoa hobetzeko. Zer zegoen aldatu beharra urte luzez iraun zuen eredu hartatik?

Eredu berria ezarri baino gehiago, aurrekoa egokitu egin zela esango nuke. Gauza jakina da, oro har boluntario kopurua jaisten ari dela. Ondorioz, gero eta zailtasun handiagoak zeuden eskoletan prestatutako monitore taldea osatzeko. Kirol elkarteekin elkarlana sustatu beharra zegoen. Finantzaketa handitzea eskatzen du horrek, baina haur guztientzat irekia eta eskuragarria izaten jarraitzea bermatuz. Trebetasun maila eskasagatik ere, ez dadila umerik baztertu. Inguruko lurraldeetan antolaketa desberdina zuten, eta bere burua errendimendura bideratu nahi zuen zenbaitek kanpora irteteko aukera jorratzen zuen. Hainbat komunikabidek errendimen-

duaren aldeko presio nabaria egin du. Oro har, eskolei ardura arindu egin zaiela esan daiteke, eskumen eta protagonismo handiagoa kirol elkarteen eskuetara pasaz: kirol eskolak beraiek kudeatzea baimenduz, haurrak federatzeko adina jaitsiz eta errendimenduko lehiaketak antolatzea ahalbidetuz.

Zein dira eredu berriaren helburuak?

Eskola ume guztiengana heltzea, batetik, eta lortzen ari gara. Zenbat eta lagin handiagora iritsi, jende gehiagok izango du aukera gero kirola egiteko. Hortik batzuk onak aterako dira, eta errendimendurako aukera izango dute. Beste helburua da ume denengan kirola egiteko zaletasuna sustatzea, ikusita helduen artean sedentarismo handia dagoela. Bi helburuen arteko oreka lortu behar dugu: atearik ez ixtea ume batzuei gora egiteko, eta beste

batzuei ez ixtea kirola egiteko. Orain arteko ereduarekin ikusi zen partaidetza izugarria bermatzen zela, hemendik kanpo ez bezalako. Oraingo egokitzapenekin talentua dutenen errendimendu maila hobetu nahi da.

Lehiakortasun gehitxo ez al dago eskola kirolean ere?

Lehia berez ez da demonizatu behar, berezkoa du kirolak. Kontua da nola kudeatzen den, zer garrantzia ematen zaion. Lehiari hainbesteko garrantzia ez emateko eskola kirolean, benjaminetan (txikienak) ez da sailkapenik egiten. Araudia egokitu egiten da haur guztien parte-hartzea bermatzeko. Emaitzaren aurretik beste balio batzuk jarri behar dira. Lehetasunak ez dira berdinak errendimenduzko kirolean eta eskola kirolean, baina irabazten ere saiatu behar da.

Eskualde guztietan irizpide bera erabiltzen al da lehiaketak arautzerakoan?

Ez. Oñatin, esaterako, benjamin denak nahi si egiten dituzte, taldeak osatuz, eta ez dira eskolak eskolen kontra aritzen. Arrasaten sailkapena egiteko, kiroltasuna eta euskararen erabilera ere hartzen dira kontuan.

Eta kirol berdinak lantzen al dira leku guztietan?

Eskualdeen arabera da. Hiru kirol kolektibo eta bi banakako egin behar dira nahita ez. Baina eskualderen batean kirol jakin batekin indar gehiago badu, horren arabera aukeratzeko da. Zarautzen eta Ordizian, esaterako, errugbiak indar handia dauka, eta errugbia egiten da.

Eredu honekin, ahalik eta kirol gehienei egiten zaie lekua. Askatasuna emanez gero, futbolak izango al luke nagusitasuna?

Futbolekin dabilen pertsona batek esana da ondorengoa: “Zer nahi duzue, guk beste kirolei laguntzea?”. Nik kirol bat aukeratu beharko banu arrauna hartuko nuke, baina nire asmoa ez da ume denek arrauna bakarrik egitea. Antolaketa honek kirol guztietan hastapena bermatzen du. Gerora, bakoitzak bere gustuko kirola hartuko du. Probatu dezatela denetik, eta trebetasunetan oinarri zabala eta garapen orokorra eskura dezatela. Kontua da gero zubi lana egiten asmatzea nerabezaroan jarraitu ahal izateko eskola kirolean hasitako bidea. Hor dago lana.

EAE, hiru herrialde eta hiru eredu daude. Zer iritzi duzu horretaz?

Lege orokorra bera da denentzat, baina gero aldundi bakoitzak dekretuen bidez programa

garatu egin behar du xehetasunak zehaztuz. Zenbaitek errendimenduzko irizpideei –klub indartsuekin elkarlanean– ematen diete lehetasuna; beste batzuek berriz, ikuspegi hezitzailea eta denen parte-hartzea gehiago indartzen dute. Azken aldaketak ildo horretatik joan dira, EAEko antolaketa neurri batean berdintze aldera.

Oreka lortzea ez da erraza...

Lehetasuna zeri eman, hori da kontua. Administrazioak dio biak orekatzea dela asmoa. Eta bere lana da federazio batzuen eta eskola kirolaren arteko oreka lortzea; saskibaloian eta futbolekin, klub batzuen indartsu ari dira eskola kirolaren kontra. Nik ez daukat ezer inolako espezialitatearen kontra.

Goi errendimendura baino ez bada bideratzen kirola, gaizki goaz. Haur bati uzten badiozu kirol bakarra egiten, hori uzten duenean nola esango diozu

beste batean hasteko, ezagutzen ez badu? Eskola kiroleko gure ereduak, hastapenean kirol batean baino gehiagotan aritzen dira, eta gero prest dauka gorputza kirol horietako edozeinetan aritzeko; oinarriko trebetasun guztiak eta koordinazioa landuta dauzka.

Eredu hau gabe kirol batzuk arriskuan egongo lirateke?


Libre utziz gero, kirol batzuek egundoko jokalaria pila izango lituzkete, eta beste batzuek alerik ez. Orain ere arazoak dituzte oso sakrifikuak diren kirolek eta bakarkako zenbaitek. Hainbat kirolekin, hiru herri elkartzen ari dira taldea ateratzeko. Kirol federatua ere krisian dago. Lehen, kirol federatua egiten zen 26 urtera arte-edo. Orain, mantentzekirola egiten dutenak nerabeak dira, kirol federatuan parte hartu gabe, ez daudelako prest asteen bi-hiru entrenamendu besteek lotutako ordutegian egiteko, eta asteburua beteta edukitzeko. Eta hor zenbait kirol besteak baino gehiago ari dira sufritzen. Batzuek etorkizun beltza dute.

Nola ikusten duzu geroa?

Uste dut erdibidea bilatzera jo behar dugula. Komunikabide batzuek interes handia dute bide baten alde egiteko, eta eragin handia dute umeengan. Baina administrazioak herri-tar guztien interesak bermatu behar ditu. Askotan entzun dugu aldundiak muturra asko sartzen duela. Enpatia behar dugu besteekin, besteengan pentsatu, dena ez da zuria edo beltza. Ahalik eta jende gehiena inplikatzeko lortu behar da eskola kirolean, eta gero, federatuan, jarrai dezatela kirola egiten. ■

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



“Ze-neke!” belaunaldia

D

NA aipatu duzu José Luis, eta literaturan taxuzko DNA edukitzeko beti da komenigarri belaunaldi baten parte izatea. Errealismo magikoaren adibidea bera hortxe dugu. “Boom latino-amerikarra” delakoak plazaratzeko parada ederra eskaini zien hainbat idazleri, tartean “errealismo magikoaren” etiketapean sartu izan direnak. Ez dirudi belaunaldi horri jokaldia gaizki atera zaionik, José Luisek aipatzen dituen idazleetatik bik jaso dute Nobel saria –Gabriel García Márquez eta Mario Vargas-Llosak– eta Carlos Fuentes beti azaldu ohi da kinieletan.

Jakina da, hori bai, inori ez zaiola atsegin bere burua belaunaldi baten pean ezartzea, idazle guztiek esango dizute belaunaldiena gartetako edo kritikarien txorakeriak direla, norberak mundu bakar, benetako eta konparaezina osatzen duela. Nik, ordea, faltan nabaritzen dut. Posmodernitate gaseosoaren noraeza existentziala izango da agian, baina belaunaldi baten parte izatearen bertan-goxo hori nahiko nuke sentitu, taldearen epela eta babesa.

Izan ere, nire adinkideak-edo diren batzuek Orgasmus belaunaldia sortu dute, Txalapartak sustatu eta argitaratutako *Orgasmus* liburua tarteko, baina talde horren kanpo geratu naiz, umezurtz. Dena emango nuke Orgasmusen kide izateko. Sarritan desirak eta errealtatea ezin bat etorri ordea. Kontua da Orgasmus belaunaldia emakumeek osatzen dutela bakarrik. Generoz aldatzeko prest nengoke delako belaunaldiaren parte izateko, baina zalantza egiten dut horrek ere balioko lukeen. Gure arteko feminismoaren zenbait aldeztailerentzat emakume izatea gauza berezi, berezko, misteriotsu, ezin azalduzkoa eta sekretuzkoa baita, gainontzeko mundutarrok –emakume ugarik barne–

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padroin

ulertu ezin duguna. Patriarkatuaren subordinatua den feminismo mota biktimista-folklorista-enpresarial honentzat, genero aldaketa ezinezkoa da, eta hala, alferrikakoak lirateke nire eginahal guztiak. Emakumeak emakume dira eta gizonak gizonezko. Irati Jimenezek kontrakoa agintzen ez duen

bitartean, eta nire zoritxarrerako, ezin Orgasmus belaunaldiaren kide izan.

Honenbestez, nire kabuz belaunaldi berri bat sortzea pentsatu dut. Orgasmustarrek Erasmus zena Orgasmus bihurtu zuten aparteko gatz eta graziaz. Bada ni Europa zabaleko hirietako batean bizi ordez Espainiako estatuko batean –Bartzelonan– bizi naizenez, balizko Seneca belaunaldia “Ze-neke!” belaunaldi bihurtzea proposatzen dut. Horretarako, has-teko, liburu bat, DVD bat, kamisetak, pegati-nak eta txapak aterako ditugu. Luze gabe *sara-oak* han-hemenka: poesia errezitaldiak, testu irakurketak, kontzertuak, bertso saioak, hitzal-diak, mahainguruak, kalejirak... Guztia, esan gabe doa, egungo literatur sistema hierarkizatu-atzerakoi-kapitalista-matxista-arrazista-desarrollista salatzeke eta gure ahotsa –gaz-teak izaki behin eta berriz zapaldua– entzuna izan dadin. Jakin badakigu hozkia eragingo diola hainbati egitasmo apurtzaile, probokatzaille eta jasanezin honek, baina euskal literaturaren berriztapenean urrats erabakigarria izango da *sindudarik gabe*.

Uxue, orrialde hauek erabili nahi ditut, zu ere Orgasmusetik kanpo geratu zinela aprobe-txatuz (ez dakit *Bueltak* ipuinaren erruz-edo), “Ze-neke!” belaunaldiaren kide izatera gonbidatzeko. José Luis, lubakitarrek kanpo utzi zintuztenez eta adin kontuetan zein bestelakoetan aski malguak garenez, zuretzat ere badugu lekua euskal literatura iraultzera datorren belaunaldi honetan parte hartzeko. ■



Gure arteko feminismoaren zenbait
aldeztailerentzat emakume izatea gauza berezi,
berezko, misteriotsu, ezin azalduzko eta
sekretuzkoa da, gainontzeko mundutarrok
–emakume ugarik barne– ulertu ezin duguna



Mikel Zurriano

EHUKO EKONOMIA IRAKASLEA

Inside Job European

Giza zitalkeria agerian uzten duen filma da *Inside Job*. Islandia du abiapuntu. Iparraldeko irla hau Europan biztanleko errenta handiena eta gizarte zerbitzuen sistema osatuena zuen eta gainera energia arloan autosufizientea da. *Utopiatik* gertuko egoera. Baina finantza espekulatuak hondoan joarazi zuten. Hortik New York-era garamatza filmak, trumoiaren bihotzera. Bertan, bankari, enpresari eta politikoen arteko sareak beren diru-gosea asetzeko boterea modu zabalean eta traketsen erabili zuten. Munduko ekonomiaren hondamendia etorri zen. Gizaki anker batzuk kea saltzen, mugarik gabeko espekulazioan, boterekerian, aberastasun lasterketa amigabearen aritzearen ordaina besteok pairatu behar izan dugu. Gupidagabeko sare horretan porrotak jota dauden bankariek eta izugarriko dirutzak ordaindutako enpresariak ez ezik akademikoak, Etxe Zuriko aholkulariek, eta abar luze batek hartzen dute parte. *Oscar* saria jaso zuen Ferguson zuzendariak Obamarekiko etsipena ere erakusten du. Filmaren amaiera aldean estuasuna gorengo puntura iristen da, izan ere gizaki bihozgabe horiek zigorra saihesteaz gain AEBetako ekonomiako gidari



DANI BLANCO

lanetan jarri ditu Obamak. Ekonomiaren eta sistemaren lidertza izan dute eta izango dute etorkizunean ere atzera mundua beren nahierara moldatzeko.

Europan ere *Inside Job* propioa filmatzeko aktore zikoitz ugari badago. Gidoi egile eta ekoizle lanetan Europako Batasuna ariko litzateke: honek idatzi du nola munduko

finantza krisia Europako zor publikoaren krisia bihurtu behar den. Hemen ere aktore lanetan ari diren nazioarteko finantza-eragileak laguntzaz Europako Batasuneko demokrazia ahularen porrota filmaren epilogoak litzateke. Nolanahi ere, erantzunak ugari-tzen doaz. Aipatzekoa, besteak beste, Frantziako Estatuan *économistes atterrés* delakoen agiria. Hauek diote krisiaren kontestuan finantzen boterearen funtsa ez dela kolokan jarri eta, aldiz, Europan –nazioarteko erakundeen eta rating elkarten presiopean– aurretik beste herrialde batzuetan porrota ekarri zuten egiturazko

doikuntza programak eta erreformak aplikatzen ari direla. Izuak jotako ekonomialari hauek ondorioztatzen dute neurri hauek Europako krisia larriagotuko dutela. Alegia, gidoia atzekoz aurrera idazteko aldarria egiten dute. ■

Izuak jotako ekonomialari hauek
ondorioztatzen dute neurri hauek
Europako krisia larriagotuko dutela.
Alegia, gidoia atzekoz aurrera
idazteko aldarria egiten dute

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Zuen izena ipuinak, liburu bilakaturik Iparraldeko ikas-toletan hedapen zabala izan zuenak, Jonan Aranguren

Ibarra deustuarra eta Benito Mujika *Xenki* zarauztar egileek ezagutu ez zutena, Urdazubin eta Lekeition guardia zibilek erahil zituztenak. Ahanzturaren pipiak jan ez zedin, Nagorek, Jonanen lehengusinak, argira ekarri digu zinema dokumentalaren formatoan, Martinez, Kastro, Larreategi eta hainbat enfizioaren laguntzaz burutua, Deustun aurkeztua. Bertan ginen zirrara kolektibo batek ordubetetik gora harrapatuta eduki gintuen jende andana, zinema sala gainezka eginik.

Herrialde berdea

Pasioa arrazoibide, maitasunak saretu kontakizuna da filmak dakarkiguna, *Kabi* lekei-tiarra lehergailu baten eztandak eraman zuenaren bizipenek osatzen dutena. Bi

belaunaldi, asmo bat. Hamaika borrokek, euskara, antinuklearra, antimilitarismoa, mundu berri baten ametsa, sare bakarrean egituratu emaitzak, txalo luze bero suharra izan zuen sari, publikoaren artean irrintzi batek bildua, isiltasun sakon batez amaitua. Badago zer kontagure biloben onurarako. Etxerako bidean, ezinegon ezti batek ekarri ninduen gidatzen automata, filma berri ikusteko irrikari bide eman ziona Izaskun Mujika zendu berria gogoan. ■

Alaitz Vives

KAZETARIA

Ipotxen matxinada

S

inesten al duzu ipotx matxinatuetan? Honatx: Udako egun sargoritsua da Eusko Treneko tren batean Gipuzkoako kostaldean. Ezustean sartu da Guardia Zibila trena nasatik ateratzear dagoela eta hor dabilta bagoietan atzera eta aurrera begiko jo dituztenei NANA eskatuz. Lehenengo mugimendu azkar eta zakarren ostean, trenetik jaitsi ezin eta gainontzeko bidaiariak bezala gelditu dira, harrapatuta, hurrengo geltokiak zer ekarriko zain.

Giroa ederki nahastu dute eta batbateko aktibitate ezak tentsio deserosoa sortu du bagoian.

Hurrengo geltokiko nasan baina, hondartzatik etxera bidean diren zientoka pertsona daude trena hartzeko zain. Treneko ateak zabaltzearekin batera bidaiariak barrura sartu dira euren hondartzako tramankulu, toalla, bainujantzi, *look playero* eta eguzkitako krema usaintsuekin. Gazteak dira asko, nerabezaro betebetan daude, hormonak bor-bor dituztela.

Trikorniodunak ez dira apenas mugitu, setiatuta, inguratuta geratu dira; trikornioa, pistola gerrian, inork ez du haiengana gehiegi hurbildu nahi, baina ez da lan erraza hondartzara egun batez leporaino beteta dagoen tren bagoian.

Udako eguzki galdatan trena badoa, bere



DANI BLASCO

ohiko triki-traka itogarriaz, ezusteko bidaiariak barruan harrapatuta. Gerrikoan lotuta daramaten armagatik ez balitz, nago, nerabe eta aurre-nerabe horiei ez dietela guardia zibilek aparteko kezkarik sortzen, bai ordea, ondoko neska-mutilaren azal beltzaranari darion usain sarkorrak.

Guardia zibilak osteria ez daude ez, lasai.

Zer aurpegi jarri ez dakitela trenaren mugimendu zakarrak nola hala jasaten dituzte. Gainontzeko bidaiariak eurek zerbait egingo dutela espero balute bezala, guardia zibil batek berrogeita hamar urte inguruko gizona begiz jo du. Ilea eta bizarra urdinduta ditu, kamiseta eta galtza laburrak soinean, bidai liburua irakurtzen ari da bizkarra bagoiaren atearen kontra jarrita.

Guardia zibilak, beregana hurbildu ezinean, NANA eskatu dio nola edo hala. Denbora eten balitz bezala, bagoi osoa isildu da, trena ezik.

Gizonak etsirik edo, besterik espero ez balu bezala egin du keinua, liburua esku batez helduz, bestearekin guardia zibilari NANA luzatuz. Begirada guztiak mugimendu horietan jarrita, jendetza hark guardia zibilari BUUUUUka hasi behar duela iruditzen du. Ez da gertatu, baina denek, guardia zibilak barne, sentitu dute, instante batez, posible dela. Sinesten baitugu ipotx matxinatuetan. ■

Guardia zibilak, beregana
hurbildu ezinean, NANA eskatu
dio nola edo hala. Denbora
eten balitz bezala, bagoi osoa
isildu da, trena ezik

TXANDAN

Josu Amezaga



Nazio Batuen Erakundearen Jabetza Intelektualaren Auzitegiak pataten salmentaren gaineko *royaltyak* onartu berri dizkie Ameriketako herri indigenei.

Historiari begiratuta patata euren sor-kuntza izanik, mundu osoan egiten diren salmenten %1 euren dagokiela ebatzi dute. Duela urte batzuk ere Mabo epaia sonatua izan zen Australian. Eddie Mabok auzira jo zuen estatuaren aurka, bere herriaren lurralde historikoak ebatsiak izan zirela-eta haien gaineko eskubideak aldarrikatuz. Azkenean arrazoiak eman zioten epaitegiek. Horrek ez die indi-

Patatak eta txapela

genei Australiako lurralde ororen jabetza aldarrikatzeko bermerik aitortzen, baina zenbait eskubide onartu egin zaizkie.

Argudio berberak erabilia, txapelaren gaineko jabetza intelektual aldarrikatu beharko genuke euskaldunok, eta ordaina eskatu haren erabilera bakoitzean; besteak beste, Che-ren irudiaren agerpen gehientsuenetan. Hori baino ez dute egiten gaur egun jabetza intelektual aldarrikatzen duten konpainiek. Ez ote liokete hauek ordea ordaindu beharko beren kanta, pelikula zein liburuetan erabiltzen duten hizkuntzaren gaineko *royaltyrik*, hizkuntza hori sortu zuen herriari? ■

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Herio arratsean

A

sagoko mendi horixka eta erreka gorriez gaindiko herri urrun hartan, eguzkia itsaso eta herri bihurtzen baina ilargia berritzen ez zeneko hartan, ozenki esan zuten egunkariak. Ozenki esan zuten ezen beharrezkoa zela enpresa nuklear hura, argindarra ekoizteko. Balizko arriskuak arrisku, babestu egin behar zela hura. Saihestezinak zirela energia-iturriak oro, baita perilosena ere. Zeren, argindarrak gabe, ekonomia motora itota ibiliko baitzen, ibiltzekotan.

Berrehun sumendi eta zazpi mila uhartetako herri urrun hartan, irratiek esan zuten ezen hain arriskutsua ere ez zela zentral nuklear hura. Alegia, ingeniariak bazutela buruan zerbait burutsua, gai gris deitzen zaiotena. Beraz, arriskua bazegoen ere, kontrolpekoa zela hura.

Kanforrondo- eta magnolia-basoetako herri urrun hartan, telebistek esan zuten ezen lurrikaren aurkako hormatzarrak zituela eraikinak. Ez zutela botako haizeteek. Ez zutela eraitsiko euriteek. Lotozko sare digitalek esan zuten ez, fabrika hura zen birrin-ezina, suntsiezina.

BAGA, BIGA, HIGA...

Bat-batean, Apokalipsiaren zaldi gorriaren etorrera ikusi zuten denek, eguzkiaren azken labandak ortzia orbaindu zuenean. Abantaila hartuta hurbildu zen Herio: trostan hasieran eta, ondoren, asapala bizian.

Sortalde urruneko herri hartara, ezpata eskuan zuela hurbildu zen balbe gaiztoa. Zamaria zakarki akuilatuz, ezinezko abiadura eroa eskatuta. Bitsak eta izerdiak xigortu zizkion zaldun krudelak abere ederrari... Kontatzen dutenez, hegoak ere kiskali omen zizkion lau hankakoari, bortizkeria neurgaitzean.

Eta, estropuz egin zuen zaldi gorriak ustekabea. Gerriak hautsi zitzaizkion zal-



DANI BLANCO



Albiste eta albiste bitartean,
amona xaharra ikusten dut lehertu
zen fabrikaren inguruko hondakinetan.
sigi-saga dabil haien artean,
plastikozko poltsa bat darama
eskuan. Arropa esekitzeko kakoa
aurkitu du zaborraren azpian



irudia:

Antton Olariaga

dunari, eguzkiak kiskalitako buztinetan. Eskuan zeraman ezpatak ihes egin eta, hara non jo zuen Herioren aihotzak zentraleko paretatzarra; birrin-ezina zena, plutonioaren kartzela izateko ingeniariak gai gris delakoarekin bikainki eta ezin hobeki diseinatu zena.

Zulo txiki-txiki bat eragin zuen metal ondo galdatu eta hobeto suberaturakoak porlan trinkotuzko eta sendotuzko hesian. Horrela geratuko zen dena, baldin eta barrutik indar egin izan ez balu patu beroak. Zuloa zena, arrakala bihurtu zen. Arrakala, zintzur. Zintzurra, leize eta amil-degi.

Askatu egin zen munstroa. Bost itsaso eta lau haizeetara barreiatu zen haren pozoia.

IKIMILIKILIKLIK

Egunak pasatu dira harrez gero. Ez asko ere, egia esan. Egunkariak eman dute ezbeharraren albiste. Negarra eragin digute irratitik nahiz telebistatik. Sare digitalak hasi dira plazaratzen segurtasunari buruzko dudak. Lehenago, txoroek baizik planteatzen ez zituztenak. Eztabaida piztu da berriz ere.

Albiste eta albiste bitartean, amona xaharra ikusten dut lehertu zen fabrikaren inguruko hondakinetan. Sigi-saga dabil haien artean, plastikozko poltsa bat darama eskuan. Arropa esekitzeko kakoa aurkitu du zaborraren azpian. Jantzita duenaz aparteko ezer ez duen arren, bildu egin du.

Hots, hots... bizioin oinok. Eguzkia itzalita, elur-zirina ari du. Erori eta mina hartu du amona horrek. Zauritu egin da, baina ebakiari ez dario odolirik. Gatzatua du. Arnasa bezala. Esperantza bezala. Urratsa bezala.

Ingurura begiratuta, ezer ez du ezagutzen, errekonozitzen. Hondakin handi xamar batera hurbildu eta kakotik eskegi du. Bere burua. ■

BERTSO BERRIAK

Joanes Etxebarria

Korrikari jarriak



XDZ

I

Korrika abiatü
zaigünez berriki,
gidari makila bat,
ikur ta zapi.
Ikurriña behar da
azkarki etxeki
herriak ho(r)i egiten,
aspaldi badaki.
Bagoaz emeki,
halere segurki,
kristau eta punki
ta lasterka beti
(e)üska(ra)en alde egiten
den arte aski.

II

Korrikaren segida
segürra delako
korrika-ttipietan
ürratsak franko.
Azken helmüga ez da,
ez berehalako,
bena horrenbeste haur,
horrenbeste tanto
bihotz eta zanko
jauzietan apo
eta zeharkako
ezpainak gorako
mila esperantza
metro bakotxeko.

III

Kilometro andana,
ote dira aski?
Erakusteko gu(r)e
indarra egiazki.
Maule, Tuter, Ea,
Amurrio, Legazpi,
denak barne gira ta,
hori ez da gaizki.
Korrikan preseski
kolore, marrazki,
kanta eta triki,
jente bete saski...
aldarri gisa dira
mila argazki.

IV

Hiru administrazio
dütügü gainean
gük intsumisoaren
sena soinean.
Ofizialtarzün gabe,
(e)üska(ra) ezinean
txoria kantan ari da,
kaiola barnean.
Borroka genean
sartürrik denean
denen izenean
a(r)i gi(r)a lanean
eta kausitüko da
hau azkenean.

V

Tipi-ttapa goazen,
Korrika hala da
bidea aitzinatü
da ontsa jada,
i(ra)ganik dütügü,
Agurain ta Sara.
Aldarria lasterka
badoa plazara
hizkuntzan, balada
gare, gire, gara,
indar hanitx bada
ta bada parada
indarrekin heltzeko
Donostiara.

DOINUA: "Gaztalondo handian".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

ADEL

Idea gorpuztuen laborategia

Artedrama Euskal Laborategia (ADEL) antolatu du aurten ere Artedrama arte eszenikoen plataformak Aulestin, herriko eragileekin elkarlanean. Apirilaren 24tik 30era formakuntza ikastaroak jaso ahal izango dira, iluntzero publikoari zabaldutako antzerki eskaintza oparoarekin batera.

OIER GUILLAN

Argazkiak: ADEL

2006AN SORTU ZEN ADEL, euskaraz lan egiten duten antzerkigile eta antzerkizaleek izan ditzaketen kezka eta beharrei erantzuten saiatzen den ekimena. Ander Lipusek azaldu digunez, ADELeke dagoeneko forma propioa hartu du, eta horretan eragin handia izan du Aulestiko jendearen inplikazioak: “Horrek ematen dio zentzua egiten dugunari. Bi esparru jorratzen ditugu ADELen: batetik, formazioa ikasle eta irakasleen artean ematen da, eta horrek berezko ibilbidea du topagune gisa. Helburua irakasleek beren antzerkiarekiko ikuspegi estetiko eta teknikoak jendeari transmititzea da. Bestetik, herriari begira egiten diren ekitaldiak daude: ildo hau erakuslelhoa bilakatu da euskarazko antzerki-lan txiki amateurak eta profesionalak ikusteko”. Laborategi izaeran sakontzeko erronka dute gogoan ADELeke antolatzaileek etorkizunera begira; besteak

beste, gai zehatz baten inguruan antolatzea egunak. “Hitz bat edo ‘espazioa eta aktorea’ bezalako gai bat hartu,

eta ikastaroak horren inguruan antolatzea izan daiteke etorkizuneko erronketako bat”.

Ainara Gurrutxaga, Miren Tirapu, Maria Urzelai, Miren Gaztañaga eta Iñake Irastorza izango dira aurtengo irakasleak. Emakumezkoak denak, zoritxarrez oharkabea pasa ez den datua. Lipusek dioenez, kontziente edo inkontzienteki beraiek ere presente izan dute hori. “Akzidentea justu iaz gertatu zen: irakasleen artean zeuden bi neskek kale egin zuten arrazoi ezberdinengatik eta ondorioz irakasle denak gizonezkoak izan ginen. Bitxia da nola irakasleak soilik gizonezkoak direnean, horrek ez duen atentzioa deitzen. Nik esango nuke teatroan badagoela normalizatua emakume eta gizonezkoen kopurua. Hori bai, teatro klasikora jotzen dugunean, eredu ia denak maskulinoak dira. Horrek zer pentsatua ematen du. Aurten akzidente kontrolatu batekin erabaki dugu irakasleak neskak izatea eta horri nolabaiteko berdintasuna ematea, genero kontuetan gehiago sartu gabe”.

Gurrutxagak eta Gaztañagak, eskolak emateaz gain, bina emanalditan parte hartuko dute ADELen. Iñake Irastor-





zaren kasuan, hitza izango da protagonista: “Testuaren ulermenetik egingo dugu lan, testu batek ematen dituen aukera ezberdinak jorratuko ditugu. Testu txikiak aukeratu ditut abiapuntu bezala, azken helburua testuan oinarrituta praktikara pasatzea izango da”. Maria Urzelaik bere ibilbidean gakoak diren ardatzen berri emango du, lehena “kodifikazioa”: “Aktoreak testu edo pertsonaia bat lantzerakoan guztiz kodifikatua utz dezake, aktorearen askatasuna kaltetu gabe”. Bestetik “*grounding*” kontzeptuaren inguruan lan egitea proposatuko du Urzelaik: “Aktoreok normalean beroketak egin eta energia handiarekin hasten gara lanean. Modu honetan, erlaxazio egoeratik abiatuko gara, aktorea momentuan, bere gorputzean eta eszenatokian guztiz errotuz. Lanean denbora asko daramagunean, ondo funtzionatzen duten gauzetan gehiegizko konfiantza hartzen dugu aktoreok, eta horrek hainbat ohitura eta klixetan erortzea ekar dezake. Aktorearen oinarritzko izatera bueltatzeko modua bilatuko dugu”. Urzelaik ADEL-en balorazio positiboa egin du oso: “Artedramako jendea beti saiatzen da zeresana duten irakasleak eramaten. Aurten goen zerrenda ikusita, gauza ezberdinak izanik ere, elkar osatuko dutelakoan nago”. Lan egiteko denbora urria izango bada ere, intentsua izan daitekeela uste du Urzelaik: “ADEL Euskal Herrian egiten diren gauzen artean interesgarrienetakoa dela esango nuke”. Xabino Alkorta Artedramako kidearen ustez topagune izaerak ematen dio dimentsio inte-



Gogoeta eta praktika, biak uztartzen ditu Artedrama Euskal Laborategiak, biak ere formaziora begira jarriak.

resgarria ekimenari: “Jende askok Aulestin ezagutu du elkar, eta hori gerora sortu izan diren proiektuetan islatu da. Ikastaro arrunt bat baino harago joateak eta herriarekin sortzen den harremanak ematen digu indarra urtetik urtera lanean jarraitzeko”.

Gogoeta gunea

ADEL beraren zutabeetako bat formazioa den heinean, saihestezina dirudi hari buruzko gogoetak. Lipusek nabarmentzen duenez, antzerkilarien eta zaleen artean asko aipatzen da teoria eta antzerkiaren lege edo teknikei buruz ez dagoela apenas libururik, ezta gogotarik ere. Horrekin batera, bada sarritan aipatu eta oraingoz egituratu ez den arte dramatikokoaren eskolaren proiektua airean. “Euskaraz ari garenok kexu agertzen gara hor euskarak zer leku izango duen galdezka. Eskola horretan zer proiektu artistiko bideratuko den da beste galdera, oso ezberdina baita aktoreak teatrorako prestatzea edo esparru zabalago baterako, telebistan lan egiteko, adibidez. Oso interesgarria eta beharrezkoa da eskola bat sortzea, proiektu artistiko batekin, aktoreari ahalbidetuko diona modelo batekin irtetea”. Zentzu horretan garrantzitsua da gogoeta, baina batez ere hori praktikara eramatea inoren zain egon gabe. “Autokritika egin behar dugu. Egia da sekulako lana daukagula egiteko eta agian ez daukagula nahiko indar eta batasun, baina uste dut guk hasi behar dugula formula horiek eztabaidatzen, erdal mundutik ez dela etorriko hori bideratzeko eskaera”.

Euskaraz lan egiten duten antzerkilariak oraindik ere bere burua justifikatu behar du. “Etengabeko erresistentzian ari gara lanean. Duela gutxi erdal mundutik galdetu zioten

Iluntzetako egitaraua

- Apirilaren 25ean 21:00etan: *Munstroa*, Urki Mugu-
ruzaren eskutik.
- Apirilaren 26an 21:00etan: *Sagarren denbora* filmaren
proiektzioa.
- Apirilaren 27an 21:00etan: *Gure bide galdunak* Deja-
bu taldearen eskutik.
- Apirilaren 28an 21:00etan: *Stereo* Miren Gaztañaga-
ren pieza, ondoren *Herio heroi* Metrokoadroka
kolektiboaren eskutik.
- Apirilaren 29an 21:00etan: *Iduzkilo* antzezlan.
- Apirilaren 30ean 22:00etan: *Errautsak* antzezlan,
ondoren Oreinak taldearen kontzertua.

Ximun Fusch-i ea zergatik ez genuen egiten *Errautsak* bezalako obra bat gaztelaniaz eta frantsesez, merkatua zabaltzearen. Berak erantzun zuen txinoz egitea pentsatzen ari garela, merkatua zabalagoa delako. Euskaldunok etengabe justifikatzen ibili behar horrek erretzen nau. Gure topagune eta ekimenei 'euskal' etiketa jarri behar diogu beti eta horrek badauka bere arriskua, gutxiago eta txikiago garela ematen baitu. Horrek dakar euskarazko ekimenak 'euskara'-tik bideratzea adibidez, eta erdarazkoak 'kultura'-tik. Uste dut herri proiektuak indartu behar genituzkeela. Aulesti, adibidez, oso herri euskalduna da eta ez dugu ezer justifikatzen ibili beharrik, antzerkia euskaraz egiten dugu gure hizkuntza delako eta kito. Euskal Herrian euskarak biltzen gaitu, baina baita adierazteko beharrak eta antzerkiaren inguruan gogoeta eta eztabaida bultzatzeko espazioak sortzeko beharrak ere”.

ADELek urteotan izan du bestelako eraginik ere, Usurbilgo eta Zarauzko topaldietako elkarlana horren lekuko. “Gure imajinarioan beti hitz egiten dugu sasi-sareez, ez direlako sare ofizialak, herri ekimenei edo indar pertsonaletatik ateratzen diren proiektuak direlako. Proiektu bakoitzaren autonomia eta berezko nortasuna errebendikatzen dugu, denak dira errespetagarriak eta aberastasuna

ematen diote antzerkigintzaren alorrean gure kulturari”.

Elungo antzerkigintzaren isla

Xabino Alkorta azaldu duenez, formazioaz gain herriko jendearen parte-hartzea bideratzeko gakoa da iluntzetako ekitaldien eskaintza (goiko koadroan aurtengo egitaraua). “Sei urte hauetan emanaldi asko eta oso ezberdinak egin dira. Lan batzuk gustukoak izan ala ez, oro har Aulestiko jendearen jarrera oso irekia izan da”. Ikusizun akeraketarekin ez dago irizpide finkorik, baina bai eginaren eginaz finkatzen joan diren ardatzak. “Lehenik eta behin ohiko sareetatik at gera daitezkeen lanak dira askotan, besteak beste Aulestin ez dago-

elako espazio eszeniko aproposik eta formatu handietan aurrekontuak ikaragarriak suertatzen direlako. Formatu txiki edo ertainak dira beraz. Urte osoan euskarazko antzerkiak ikusteko joera berezkoa dugunez, beti dugu Aulestin ondo enkatatu dezaketen lanak topatzeko xedea. Bestetik, beti izan dugu joera Iparraldeko antzerkigintzako lanak ekartze-ko. Iparraldean antzerki talde amateurak oso emankorrak dira eta amateur hitza oso ondo konpontzen da kalitatearekin”. Normalean beti geratzen zaizkie sartu nahi lituzketen lanak kanpoan. “Zorionez, guretzat ez da arazo egitaraua betetzea”. ■

**Ikastaro arrunta baino gehiago da
ADEL: Aulestin egiten da, eta
herriarekin lotura izatea oso
garrantzitsua iruditzen zaie
antolatzaileei**



Hernani

Liburu azoka maiatzaren 5etik 8ra, Plaza Berrian

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi
irakurriz!*

Musika

Kontzertuak murrizteko mehatxua Donostian

Salaketak, adostutako ordutegiak eta murrizketak dira Donostiako tabernekin gaur egun duten egoera egokien azaltzen duten hitzak. Donostia 2016an Europako Kultura Hiriburu izateko lehian dabilen garai honetan, zuzeneko kontzertuak murriztuz doaz.

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

“UDALA ORAIN ARTE Le Bukowskin programatzen aritu da legedia betetzen ez zuela jakin bazekien arren” dio lokal horretako arduradun Asier Aizpuruak. Izan ere, Le Bukowskin Donostikluba zirkuituko kontzertuak ematen dira, eta Udalak erabakitzen du horietan zein taldek jotzen duen. Tabernak hogeitaz urteko ibilbidea du eta Donostiako musikan erreferentia da, baina orain behar duen itzalak ilundu du. Lokala intsonorizatu dagoen arren ez du Kafe Antzoki izatera iritsi eta, legediak azaltzen duenez, bereizgarri hori izatea beharrezkoa da kontzertuak eman

ahal izateko. Orain arte Udalak Le Bukowskiri kontzertuak emateko trabarik jarri ez badio ere, eraikinean bizilagun berriak sartu eta legedia betetzen ez duela jakinda, salaketa jarri du batek. “Ez da soinuagatik izan, aurreko astean dezibelioen neurketa egin genuen eta legearen barruan geunden” dio Aizpuruak. Halere, azken hilabeteetan Udaleko langileak dezibelio maila ikustera “mila bider” gerturatu dira eta hori kontuan hartuta salaketa ez da ezustean etorri.

Le Bukowskiko jabeak uste du salaketa etorri dela legedia ez delako urtetan moldatu;



zaharkituta dagoela, alegia: tabernak dituen bafleez gain, beste batzuk jartzea debekatzen da, adibidez. Hau da, muga jartzeko ez da soinuaren dezibelio-etan oinarritzen, bafle kopuruan baizik. “DJak kontzertu batean baino ozenago jar dezake musika eta legearen barruan egongo da, baina kontzertua ez. Ez da logikoa” dio Le Bukowskiko jabeak.

Hilero hamabi kontzertu inguru ematetik, Donostiklubaren egitarauko ez gain soilik lau eskaintzera pasa da Le Bukowski. Hasieran Udalak Donostikluba zirkuituan programatuta zeuden saioak bakarrik eskaintzeko baime-na eman zien. Tabernako jabeek onartezina iruditu zitzaizkien, eta horren aurrean kontzertu guztiak bertan behera geratuko zirela jakinarazi zioten Udalari. Horrek mugimendua sortu zuen kalean, baita sare sozialetan ere (Twitter-en adibidez, hamaika mezu zabaldu zen #freebukowski etiketarekin) eta Udalak jarrera aldatu zuen azkenetako. Kontzertu kopurua asko murriztu dieten arren, tabernako jabeak ez daude erabat triste, gutxienez akordio hori lortu dutelako.

Donostian bada eszena undergroundik

Urtetan ikusi da mota honetako lokalak guztiak iraunkorrak eta indartsuak direla. Asteburuetan jendeak deskantsatu eta lasai egoteko gogoia izan

“Zein kultura eskaini dezakegu? Mozala daraman kultura? Non dago tolerantzia? Hori faxismo gogorrenaren herentzia da”

JULIO BIURRUN, LEIZE GORRIA

“Guk euskara bultzatu nahi dugu, baina Udalaren programaren barruan euskarak ez du lekurik”

HARITZ BARELA, DOKA

ten du eta musika horretarako tresna bikaina da. Bada Donostian kontzertu gutxi emateaz kezkatzen denik. Horiei erantzunez, tabernariak diote kontzertuak egiten direla; Donostiako kultura musikala klandestinoa den arren, eta gaur egun musika komertzialak indar gehiegi duen arren, Donostian ere badela underground eszena. Taberna hauetara

mota guztietako jendea joaten da, musikaz gozatzeko gogoia duena. Batzuek musika komertzialagoa jartzen dute eta besteek aldatibagoa. Le Bukowskik, adibidez, orain arte kontzertua eskaini nahi izan duen talde orori baiezkota eman izan dio. Egoera berriaren aurrean kalitate oneneko taldeak hartu beharko dituzte, hasiberri askori ateak irekitzeko aukerarik izan gabe.

Eta legediaren zaharkitzea gogorren jasan duen taberna Le Bukowski den arren, besteek ere murrizketak eta ordutegi mugatuak jasaten dituzte, Dokak eta Leize Gorriak, kasu.

Ordutegi mugatuak

Kontzertuak emateko aukera duten tabernek eta Kafe Antzokiak ordutegia bizilagunekin adostu behar izaten dute. Eurekin duten akordioari esker, Dokak eta Leize Gorriak musika emanaldiak eta poesia errezitaldiak lasai antolatzeke aukera dute, betiere, 23:00ak baino lehenago ixten badute.

Leize Gorriak gaur egun ez du arazorik, baina Le Bukowskin gertatutakoa ikusi ondoren, etorkizunean beraiek ere egoera berdina pairatzeko beldur dira, eta horren aurrean legedia errealitatera molda dezatela eskatu dute. “Kulturaren hiriburua izan nahi badugu, argi izan behar dugu jendea gure hirira musika entzutera eta kulturaz gozatzera etorriko dela, bestela jai dugu” dio Julio Biurrun Leize Gorriako jabeak. Kultura anitza dela eta Euskal Herrian orokorrean oso kultura zapaltzailea dugula ere azpimarratu du: “Zein kultura eskaini dezakegu? Mozala daraman kultura? Non dago tolerantzia? Hori faxismo gogorrenaren herentzia da”.

Udaleko Kultura eta Gazteria saila saiatzen ari da musikarekin orokorrean dagoen arazoa konpontzen, baina Biurrunek dioenez, “Udala da legeak erregulatzen dituen eta argi dago pertsonen askatasuna urratzen duten legeak aspaldi aldatu behar zirela”.

Dokak ere salaketa

Doka da Donostian dagoen Kafe Antzoki bakarra. Kontzertuak, antzerki obrak, hitzaldiak, bideo ikuskizunak eskaintzen dituzte



Le Bukowskiko kontzertuetako argazkiak ezkerrean. Behean, Leize Gorriakoak. Hurrengo orrian berriz, Dokakoak.





eta bertara joaten den jendeak 20-30 urte inguru dituen arren, kontzertu zehatzak ikustera joaten dira asko. Dokako jabeek diote mugimendu kulturalarentzat tresna dela Kafe Antzokia eta gizarteak dituen behar batzuei erantzuteko sortu zela. Mota guztietako taldeek jotzen dute bertan, nahiz eta euskaldunei indarra ematen saiatzen diren. “Guk euskara bultzatu nahi dugu, baina Udalaren programaren barruan euskarak ez du lekurik; edo, lekurik badu, ez da behar adinakoa” dio Haritz Barela Dokako arduradunak.

Dokak ere salaketak eta murrizketak jasan ditu azkenaldian. Leize Gorriak bezalaxe bizilagunekin ordutegia adostu du, eta egun batean kontzertu bat emateko baimena eskatu ez zutenek bizilagunek salaketa jarri zieten. “Normalean udaltzainek bost neurketa egiten dituzte bolumenaren berri izateko. Egundik hant hemezortzi egin zituzten eta batez bestekoan positiboa ateratu zen”. Guztia konpondu bitartean lokala ixtera behartu zituen horrek. Hala ere, gauzak azkar konpontzea lortu zuten eta egun bat baino ez zen egon itxita. Baina gauzak ez ziren hor amaitu, handik gutxira konturatu zirenez, jendea euren kartelei argazkiak ateratu eta salaketak jartzen hasi baitzen, ezin zen lekuan kartelak jartzeagatik. “Bizilagunarena ulertzekoa da. Kartelaren kontua da gehien mintzen gaituena. Zehazki ez dakiguna da Udalak bultzatutako zerbaite izan den edota bizilagunengandik datorren guztia” dio Barelak.

Kultura hiriburu

Tabernetako jabeek garbi daukate gizarteak aldeztu aurretik jakin behar duela zer eskatzen ari den. Gaur egun dauden tabernak mantendu eta hiriak bizitza izatea gustatuko litzaieke, baina horretarako Udalak laguntza ematea eta jendearen jarrera positiboa izatea beharrezkotzat jotzen dute. Gainera, hiriarentzat eta hiriko biztanleria osoarentzat musika lagungarria izan daitekeela azpimarratu dute. ■



laia
sagardotegia

arkolla auzoa 33 • Hondarribia
Tel.: 943 646 309
info@laiaerretegia.com

www.laiaerretegia.com

ANA ZAMBRANO



INIGO AZIKONA

PERTSONAIA- REN IZENA ----- GAUEKO OTORDU	TRUKATZEA, ALDAKETA ----- BOKAL ERREPIKATUA	LANDARE LEKADUN	 INIGO AZKONA	EUSKARA INTERNET BIDEZ IKASTEKO ----- JOKOA	KATU AR ----- KUIAREN FAMILIAKO FRUITU	FRUITU MOTA ----- HASERREKOR
GIZONEZKO IZENA ----- MIATUZ				ESKUTITZ ----- HILOBI		
				INFIN., SALDU ----- PERTSONAIA- REN ABIZENA	INUDE ----- ZUHAITZ IZENA	
EHUN, ERRO- MATAR ERARA ----- UGAZABA, NAGUSI	ASABA ----- BAKARTU				ORBAN TXIKI ----- NAFARROAKO IBAIA	
		NESKAK GURASOEKIKO ----- URTEBERRI EGUNA				SODIOAREN SINBOLOA ----- ISKANBILA
ELKARGOA, ERKIDEGOA	ZUBEROAKO HERRIXKA ----- FIDEL		ZUREAK ----- ERAMAN			IKUSKIZUN DIBERTIGA- RRI
				IRRIS ----- MOTORRIK GABEKO IBILGAILU		
EUROPIOA ----- ISURKARI ORGANIKO KOLOREGABE		PASTEL HANDIAK ----- APARTA, BIKAIN			JARDUN, ERAGON ----- ...-TAK, ERLOJUA	
			NAFARROAKO HERRIA ----- UNIBERTSI- TATE ESKOLA			ROENTGEN ----- LANDA, SALBU
IKASIA, JAKINTSUA ----- ILUNABAR, ARRATS				OLIBAREN ZUKUA (PL) ----- TONA		
					ETXEKO ANIMALIA	

	A	T			B	K	B											
A	F	A	R	I	J	O	L	A	S	A								
M	I	C	A	K	A	G	U	T	A	N								
					S	H	A	Z	A	M	A							
J	A	B	E	A	L	A	B	A	K	N	A							
				A	R	U	E	H	I	R	E	A	K					
E	L	K	A	R	T	E	A	A	R	R	O	Z						
L	E	U	T	A	R	T	A	K	A	R	I							
	A	D	I	F	A	O	S	T	I	T	A	R						
	L	L	U	N	S	E	N	T	I	O	L	I	O	A	K			
															K	A	T	U

Liburuak

KRITIKA

Heriotza La Fenicen.

Donna Leon. Itzultzailea: Koro Navarro.

Erein. 408 orrialde. 22,90 euro.



Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez

Oraindik errudun bila

“HAS GAITEZEN HASIERATIK”. Lewis Carrolllek behin esandako hitzei jarraiki ekin diot Donna Leonen polizi-eleberri zikloaren lehen alea irakurtzeari. Genero hau jorratu duten Chandler, Camillieri edo Mosley bezalako idazle handien ildotik, *Heriotza La Fenicen* (1992) eleberriaz, gure detektibe ezagunen zerrendara gehitu beharreko Guido Brunetti izeneko *commissario*aren ibilbidea martxan jarriko da.

*La Traviata*ren bigarren ekitaldia hastear dela Helmut Wellauer, alemaniar opera zuzendari ospetsua, hilda aurkituko dute Veneziako La Fenice antzokian. Hiltzailearen seinalerik ez, eta ikerketarako abiapuntu bakarra katilu, batean aurkitutako potasio zianuroaren aztarnak.

Wellauerren eremu profesionala osatzen zutenek diote, maisuaren lanek galduta zutela urte batzuk atzeragoko distira. Brunettik berak elkarrizketatuko dituen pertsonaiengandik bildutako informazioak ondorioztatuko duenez, bere famaren gailurrerako bidean etsai andana utzi zuen. Hala ere, hildakoa-aren izaera despotikoaren berri ematen duten datu hutsalez gainera, hura hiltzeko arrazoirik eduki zezakeen inor ez da ageri. Baina, ba al da norbait hiltzeko pisuzko arrazoirik?

Brunettik maisuaren iragana ikertzeari helduko dio, eta atzerakako prozesu horren bitartez, krimen bati buruzko narrazioa zirudiena, biografia ilunaren inguruko kontakizuna bilakatuko da, pertsonaia ospetsu baten iraganeko eskandaluak azaleratuko dituena. Nor izan zen egiazki Helmut Wellauer?

Ikerketak hartuko duen norabide horren inguruan gorputzuz joango da eleberriaren trama. Opera maisuaren bizitza pribatua heriotzaren arrazoiak bilatzeko gehiegizko tema horrek, ene ustez, intriga maila murrizten du, tokian tokiko pertsonaiei eskainitako karakterizazio eskasak ez baitu irakurlearengan hiltzaile baten perfila irudikatzeko aukerarik ematen. Denak ala inor ez? Imajina ezin genezakeen bukaerara iritsi arte ez gara konturatuko horrek betetzen duen funtzioaz.

Hemen ez da errudun/biktima banaketa zorrotzik ageri. Ustezko krimen bat argituko duten giltzarrien bilaketa prozesu horretan hildako baten iraganeko trazu zikinak azaleratzen diren heinean, irakurlea ohartuz doa epailearen ardura bereganatzen duela. Eleberriaren amaierak kasuaren itxiera dakar, baina ez benetako errudunaren izena. Azken orrialdetik aurrera irakurlearen esku geratuko da, errudun/biktima izatea zeini dagokion aukeratzeko erabakia. ■

Herri kurduaren epopeia nazionala

Urtzi Urrutikoetxeak laburtu, apailatu eta euskaratu du Mem eta Zinen istorioa, Ehmede Xanik izkiriaturako herri kurduaren epopeia nazionala, eta Txalapartak eman du argitara. Shakespeareren *Romeo eta Julietan* gertatzen zen moduan, gizarte maila diferenteko bi gazteren maitasun tragedia


da kontakizunaren ardatza. Ezinezko maitasun horren bidez, ordea, garaiko gizarte kurduaren eta Ekialde Hurbilaren errealitatea hurbiltzen digu liburuak. Jauntxoek kontrako borroka, ukazioen kontrako altxamenduak eta hizkuntzarekiko atxikimendua aurkituko ditu irakurleak obra honetan, besteak beste. ■



Mem eta Zin.
Ehmede Xani.
Txalaparta.
83 orrialde.
10 euro.

Miren Agur Meaberen ‘Zazpi orduak’


2010aren amaieran bi liburu publikatu zituen Miren Agur Meabek. *Bitsa eskuetan* poemarioa, batetik, Susa argitaletxean; eta bestetik, beharbada isilago pasatu den *Zazpi orduak* hau, Elkarren. Lekeitioko idazleak sarreran ohartarazten dizu liburu honetara ez duzula hurbildu behar “paisaia bati urrutetik begiratzen dionaren moduan”, horrela ez baituzu barruan aurkituko duzunarekin behar bezala gozatuko. “Liburu hau ez da ohiko begiekin irakurtzekoa” jarraitzen du Meabek, “hau preziatzeko, magiaren kristala ipini behar duzu begietan”. Funtsean, istorio nagusi baten inguruan egituraturako ipuin eta koplak aurkituko dituzu barruan, sentipenak eta emozioak. ■



Zazpi orduak.
Miren Agur Meabe.
Elkar.
165 orrialde. 17 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Malatu.
Malatu.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 53'07".
10 euro.

Azkeneko ijitoak ote dira?

IZENEAN kutsu afrikarra daukan talde honetako kideak ehunka abenturatan (Mugalaris, Anastua, Potato, Gasteiz Big Band eta beste...) ibilitako *pajaro*-ak dira eta batez ere Gasteizen eta Leintz-Gatzagan dituzte euren habiak. Kontrastez betetako eskaintza ekarri dute, Zumetaren estilora Vicen Herмосoren ilustrazio eder batzuen barruan ezkutatzaren dena. Bada nire ustez (beraiek ez daude ados) jazzaren *tempo* eta jantzirik, baita swing usaine-

ko piezarik ere. Izenean tatuatuta daramaten Afrika ere nonbait ageri da perkusioetan; eta euskal folka arnas-teaz gain, latinotik ere edaten dute tar-teka. Bestalde, doinu ijito-tronpetariak ere badituzte, eta gai dira instante bakarrean abesti xuxurlatu batetik parrandara igarotzeko. Euskarazko hitzetan, malenkonia, bizi-poza eta gertutasuna.

www.myspace.com/malatu jazz

Mikel Garcia eta Iñaxio Gabilondo - Malatu

«Askatasunaren musika egiten dugu»

Malatu baserri bat da berez, baina izenak Afrika eramaten nau. Talde honekin euskal folketik abiatuta urrun eraman nahi duzue entzulea?

Mikel Garcia: Ez dugu horretan pentsatu ere, entzulea nonbaitera eramatea. Guretzat egindako musika da, gero zabaltzen duguna inongo pretentsio barik.

Iñaxio Gabilondo: Musika sortu da nahi gabe, bakoitza musika mundu oso desberdinetatik gatozelako. Beste leku batzuetako doinuak ere agertzen dira, eta euskaraz abes-teak ere hemengo ukitua gehitzen dio. Euskal Herritik mundura, baina euskaldun moduan, hori zainduta.

Joera oso desberdineko kideak bildu zarete. Zertan egiten duzue bat Malatun?

M.G.: Musikari begiratzeko ikuspuntu horretan egiten dugu bat, askatasunaren musika egiten dugu. Melodia batzuk eramaten ditugu eta horren gainean bakoitzak botatzen du daukan onena.

Xuxurlatutako kanta barrurago sartzen dira?

I.G.: Intentzioa hori da xuxurlatzen



duzunean, baina zuk sentitzen baduzu zerbait abesten duzunean, modu batean zein bestean, hori transmititu egiten da, heltzen da.

Animaliek protagonismo handia dute diskoan: karramarroak, sugea... Ama Lurrean kendu diegun protagonismoa eman diezue?

M.G.: Bai. Umeek ere ulertzeko moduan eginda daude. Barruan daramagun umearentzat metaforak dira. Beti pentsatzen dugu ez gara animaliak eta ez dakit zergatik.

I.G.: Umeekin konexio handia egoten da kanta horiekin.

Mikel Laboa barruan daramazuela esango nuke. Baina zein da zuen ustez ahaztuko ez duzuen Laboaren irakaspena?


I.G.: Niretzat hegan egiteko konpainia, laguna da. Eta zuri Malaturen kanta bat entzuteak Laboa gogoratzen badizu, kristoren sententzia da.

M.G.: Oso urrun zegoen beste giza-kiongandik, aurrean, azpian, goian... Ez dakit non. Mezu politik utzi zizkigun, bihotzera heltzen direnak. Bera sendagilea zen, eta hori zen bere bokazioa, kantatuz ere sendatzen zuelako. ■

Ezpalak

JON TORNER

Daskalopoulos greziarraren bilduma Guggenheimen



ARTE GARAIKIDEARI dagokionez munduko bilduma aberatsenetakoren jabe da Dimitris Daskalopoulos finantzari greziarra. Berak jasotako 30 egileren 60 bat lan daude ikusgai Bilboko Guggenheim museoan, *Bitarte argitsua* izenburupean. Formatu berriak erabiliz, egungo gaiak interpretatzen dituzte obra horiek, genero este-

reotipoak edota gatazka geopolitikoak, besteak beste. Erakusketaren fitxa: www.guggenheim-bilbao.es.

Baionako Bonnat museoak atearak itxiko ditu, eraberritzeko

BAIONAKO Herriko Etxeak jakinarazi berri duenez, Bonnat museoak hiru urtez itxiko ditu atearak. Epe horretan, eta Bonnat-Helleu izendapena eskuratzeko helburuz, frantses Kultur Ministerioak aginduriko hantidite eta zaharberritze lanak burutuko ditu; besteak beste, 6.000 obrak osaturiko bilduma egiaztatzea eta museoari irudi berria emango dion proiektu arkitektonikoa ontzea. Bisitariei atearak itxiko zaizkien arren, ikasleek eta ikerlariek baimena izango dute bertan lanean jarraitzeko.

Jare musika taldeak *Itxaropenaren ertzean* (Oihuka) lehen diskoa plazaratu du. Aurrez Idi Bihotz eta Flyn'Freak taldeetan aritutako Mikel eta Gorka Bizar anaiak sortu dute talde berria.

Arantxa Urretabizkaia eta Miren Agur Meabek Espainiako Kritika Saria irabazi dute, *3 Mariak* (Erein) nobelarekin lehenak, eta *Bitsa Eskuetan* (Susa) poema liburuarekin besteak.

Bilboko Orkestra Sinfonikoak 90 urte beteko ditu 2012ko martxoaren 8an. Ospatzeko, Arnold Schönbergen *Gurrelieder* obra programatu du 2011-2012 denboraldirako. Bi emanaldi izanen dira datorren urteko martxoaren 8 eta 9an, Anne Schwanewilms sopranoaren edota Simon O'Neil tenorearen parte hartzearekin, besteak beste.

● **Eneko Knorr, mugikorretarako jokoak doan eskaintzen dituen Ideateca enpresako buruak Berrian:** «Beti esan da iPhonearen erabiltzaileari ez zaiola ordaintzea axola, baina hori mito bat da. Zer egin behar da orduan? Eredu berri horretara moldatu, jokoak doan eman eta etekina atera jokoaren barruan sarturiko publizitateak. (...) Joan zen hilean San Frantziskon izan nintzen, eta kontsentsua zegoen: doan jarri ezean, jendeak ez ditu aplikazioak deskargatuko. Hori hemen esaten duzu, eta jendea harritu egiten zaizu, gure merkatua atzeratuago dagoelako, baina argi dago etorkizuna halakoa izango dela. (...) Egunkari batek duen egitura ordaintzeko, publizitatea ez da aski; beraz, gauza bereziak eskaini eta ordainpeko erabiltzaile bereziak lortu beharko dituzte».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

IBERNALO landetxea - jatetxea

Gozatu naturaz: hipika, arrantza, golfa, eskalada, amildegiak...



01110 Kanpezu (Araba) - ☎ 945 102 271 / 647 911 484 - www.iberنالorural.com

JON TORNER

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Super-eroankortasunak ehun urte “bete” ditu

1911KO APIRILAREN 8AN H. K. Onnes fisikari holandarrak frogatu zuen merkurioa asko hoztu ondoren elektroak erresistentziarik gabe higitzen direl. Bestela esanda, super-eroankortasuna existitzen dela frogatu zuen.

Onnesek 4,2 kelvineraino (-267°C) hoztu zuen merkurioa eta elektroak libreki higitu ziren erresistentziarik gabe. Orduz geroztik, super-eroankortasuna gero eta tenperatura altuagoan lortzea izan da ikerketen helburua; lehen urratsa 1986. urtean eman zen, 150 kelvinean (-123°C) kobre eta oxigenoz osatutako zeramika super-eroalea osatu zenean.

Egun ikerketak arestian aipatu ildotik jarraitzen badu ere, aplikazio ugari eman zaizkio dagoeneko. Medikuntzan, garunaren funtzionamendua aztertzeko detektagailu magnetikoak dira horren adibide, baina aplikaziorik ikusgarriena lebitazioari emandako bulkadan datza, horrela garatu baita Maglev izeneko abiadura handiko trena. Tren horren lerro esperimental bat Japonian eraiki zen, eta 581 km/h-ko abiadura lortu zuen.



Maglev tren azkarra, super-eroankortasunari esker garatutako aplikazioetako bat.

50 urte dira Yuri Gagarin espazioratu zela

YURI ALEXEYEVICH GAGARIN 1934ko martxoaren 9an jaio zen Klushinon, SESBn. Bere aita arotza zen eta bere ama nekazaritza lanetan aritzen zen. Oinarrizko ikasketak burutu ondoren, Gagarin fundizio-ingeniaritzan espezializatu zen.

Bere ametsa hegan egitea zenez, 20 urte zituela aeroklub batean izena eman eta oso emaitza onak lortu zituen. Hortik pilotuen akademiara joan eta kosmonauta izateko hautatutakoan artean egotea lortu zuen.

1961eko apirilaren 12an Gagarin espaziora bidali zuten, eta grabitate eza sentitzeaz gain Lurra espaziotik ikusi zuen lehen gizakia izan zen. Bere hegaldiak 108 minutu iraun zuen eta Lurrari bira bat eman zion 27.000 km/h-ko abiaduran. Bidaiaaren akabera ez zen oraingoan antzekoa izan, paraxuta erabili baitzuen lurreratzeko.

1968ko martxoaren 27an hil zen Gagarin, gidatzen ari zen MIG abioiarekin istripua izan ostean.



WWW.SPACEFACTS.DE

la zazpi mila milioi gara munduan

Aurten helduko gara kopuru horretara, eta joan den mendean egindako aurreikuspenen aurka, munduak lortu du janari nahikoa ekoiztea eta pobrezia txikitzea, Michigan Unibertsitateko David Lam ekonomialariaren hitzetan.

<http://ttiki.com/26069> (Gaztelaniaz)

Antsietatearen gakoak argitu nahian

Zergatik pertsona batzuk, arazo arinen aurrean, asko larritzen dira, eta beste batzuek lasai jarraitzen dute arazo larrien aurrean? Zientzialari talde batek gure garuneko zirkuituetan topatu ditu galdera hori erantzuteko argibideak.

<http://ttiki.com/26070> (Gaztelaniaz)

Inoizko zulorik handiena Artikoko ozono-geruzan

Orain arte Antartika izan da ozono-geruzan arazoak izan dituen lurraldea, baina aurten Artikoko geruza %40 txikitu da. Antza denez, aurtengo negua hain hotza izan da, atmosferan dauden klorofluoroak aktibatu eta ozonoa ahuldu baitute. Datozen urteetan segitzeko gaia izango da hau ere.

<http://ttiki.com/26071> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Nektarra

OTEA, *ULEX EUROPAEUS*, bezalako landare jendea negutik udaberrirako Erromako zubiaren sasoian hori kolorearen bueltan loratu ondoren, zurirantz joko du loragintzak. Udaberriaren apirila da hementxo lore-sasoi nagusia. Kolore guziak bat datozen zuriaren bidetik, *Prunus avium*, gereziondoaren ondoren, sagarrondoa (*Malus x domestica*) eta elorri zuria (*Crataegus sp.*) bezalakoen loreen loratzea hemen da. Baita kanpotik ekarri eta kopia handirik gabe etxekotu dugun sasiakazia ere, *Robinia pseudoacacia*. Zuriz janzen delako geuretu ote dugu hain agudo, xenofobia arrastorik gabe? Honen zuria, baina, usain gozoko lurrinen losintxetan agertzen da, sudur eta usaimen gorrenak ere jabetzeko eran. Zuhaitz honek aise, samur bereganatu gaitu euskaldunak, gure gizartearen klima busti-lehorrerako egur paregabea izatea eta udaberriko odol berritzearen bor-borretan lurrin hordigarria. Ez ditu erle, erlama, erlamando, erlakume, erlenagi, erlero, erlastar, liztor eta liztortzarrak bakarrik zoratzen, baita erlezainak eta gu denok ere.



Sasiakazia, *Robinia pseudoacacia*.

Eztizaleak ez dira inondik ere atzera geratzen; sasiakaziaren ezia argia da, baina gutxik duten lore-lurrin fina eta fruktosa kopurua ditu. Eta, zer gehiago behar? Bada, gogoan izan: “akazia lore, antxo urre”. Gure etxeko sasoi honetako otordu onenetakoa hauxe: bokartak eta sasiakazia lore mordoak arrautzeztatu, eta arin-arin frijitu, inola ere lehortu gabe, eta sagardo botilaratu berria lagun, batetik eta bestetik nahasian jan. Harritu, zurtu eta lurtu, dena egiten da probatzen duen guztia. Niretzat lorea bera bokarta baino hobea. Esaera zaharrak ez dio alferrik: “apirileko lorea urrea baino hobea”. Gurutzea edo lauburu

izan, lepoan urretxoak izatea baino hobea da zintzurra barrena sasiakazia lorearen nektarra garbituz igarotzen den antxua.

Apirila jorraila ere bada, udan eta udazkenean urteko uzta nagusiak izango diren sailak jorratzeko sasoiak. Gero gerokoak. Nik oraintzeko sasiakazia lorearen lagun samurrenei begiratzea nahiago izaten dut: zainzuri, ilar, baba, baratxuri, tipulin...

Kartzelak

Gerezi batzuk jan nahi ditu txabola honen nagusiak. Hor du gereziondoa, *Prunus avium*, kartzelan sartua. Beretzat bakarrik, beste inorentzat ez baititu nahi gerezi goxoak. Txorien beldur bizi da, bereak direnak kenduko dizkieten zozo, mika eta mokodun guztien beldur. Gizagaixo beldurtia. Eta beldurra dena sendatzen duelakoan beldur hori zabaltzen ahalegintzen da. Hegaztiak ez diren bi-hankakoak ere uxatu nahi ditu “bere” gerezietatik eta horretarako zakurra kateatzen du, zaunkaria kartzelaraten du. Beldurraren kartzelan bera bizi da, gizarajoa. Hori bizitzea bada...



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Hezur-haragizko Osaba Sam

ARLINGTON (MASSACHUSETTS, AEB), 1766KO IRAILAREN 13A. Garai hartan Menotomy esaten zitzaion herrian, eskoziar jatorriko familia baten baitan, Samuel Wilson jaio zen. 23 urte zituela, anaia Ebeneszerrekin batera, New Yorkeko Troy hirira joan zen bizitzera eta hainbat negoziotan jardutera. 1797an Betsey Mannekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Wilson 1854an hil zen, 87 urte zituela eta Troyko Oakwood hilerrian dago chortzita. Halako biografia arrunteko gizona, nolatan iritsi zen munduko lehen potentziaren sinbolo izatera?

1812an, ingelesen aurkako gerra piztu zenean, Sam Wilsonen haragia paketatzekeko negozio joria zuen. Iparraldeko frontean armada estatubatuarra haragiz hornitzeko kontratua lotu zuen gobernuarekin. Haragia upeletan sartu eta eramaten zuen, baina upelen jabea AEBetako gobernuaren zenez, U.S. (United States) inisialez markatuta zuden. Soldaduek, laguntarientan, *Uncle Sam* (Osaba Sam) esaten omen zioten Wilsoni eta, hala, brometan, upeletako inisialak haragi hornitzailearen ezizenari zegozkiola esaten hasi ziren. Txantxa



ahoz aho zabaldu zen lehenik eta, ondoren, papelean jasota geratu zen; terminoa lehenengoz Frederick Augustus Fildaddy idazleak jaso zuen *The Adventures of Uncle Sam in Search After His Lost Honor* izenburuko lan alegorikoan eta, bertan, benetako *Uncle Sam* Wilson zela aipatzen zen.

Handik ehun bat urtera, 1917an, James Montgomery Flagg ilustratzaileak Lehen Mundu Gerrarako soldaduak errekrutatzeke afixa diseinatzeke enkargua jaso zuen. Ordurako AEBetako gobernuaren sinbolo ezaguna zen Osaba Sam irudikatzea erabaki zuen, kapela luzean AEBetako banderaren izarrak zituela eta hatz erakuslea ikusleari zuzenduta. Modeloaren

lana aurreztu asmoz, Flaggek bere burua marraztu zuen, ile eta bizar zuria erantsita, itxura serioagoa emateko. “*I want you for U.S. Army*” leloa gehituta, inoizko kartelik ezagunenetakoa osatu zuen. Lehen Mundu Gerran lau milioi kopia inguru inprimatu zituzten eta Bigarren Mundu Gerran ere erabili zuten gazteak gerrara eramateko.

Duela 50 urte, 1961ean, AEBetako 87. Kongresuak ofizialki onartu zuen Osaba Sam sinboloaren atzean benetako pertsona bat zegoela, hau da, hezur-haragizko –batez ere, haragizko– Osaba Sam Samuel Wilson okela-paketatzailea izan zela.

Arrastoak

Ez da frogatu Leninek tsarra exekutatzeke agindu zuenik

NIKOLAS II.A TSARRAREN eta bere familiaren hilketen auzia berriro ireki dute 1993tik bosgarrenez, tsarraren ondorengoez eskatuta. Oraingo honetan ere, historialari eta adituek ez dute frogarik aurkitu hilketak Leninek berak edo eskualdeko arduradun

komunistaren batek agindu zituela baieztatzeke. Hala ere, auzitegi gorenak ondorengoen eskakizunetako bat ase du: orain arte, familiari gertatutakoa “hilketa soiltzat” jo dute ofizialki, baina hemendik aurrera estatuko errepresioaren biktimatzat joko dira.



Koldo Ordozgoiti

«Legebiltzarrak ezin dio ezer ezarri Kongresuari, baina alderantziz ere ez, dio Ibarretxek»

Errenteria, 1959. Informazio Zientziak Bartzelonan ikasi zituen. 1982an Donostia-Loiola Herri Irratian hasi zen kazetari. Eusko Jaurlaritzaren bozeramailearen komunikazio arduraduna izana. Komunikazio aholkulari da egun. *Geroa gurea da* (Alberdania) liburuaren egilea.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

IBARRETXE LEHENDAKARIAREN MEMORIA POLITIKOAK du azpititulutzat Koldo Ordozgoitiren *Geroa Gurea da* liburuak: “Nik idatzitakoa da, baina pentsamendua lehendakariarena da, noski. 1999an Juan Jose Ibarretxek bere memoria politikoak jorratu nahi zituela esan zidan, ez zuen lehen pertsonan egin nahi ordea. 1994tik 2010era doan ibilbide jakin baten hausnarketa da. Ez da historia, aurrera begirako liburua baizik. Denbora horretako dokumentu ofizialak, politikarien ahotsak eta gertakari historikoak uztartu ditugu. Ibarretxe doktore tesia egiten ari zen unean egina da eta hainbat hausnarketa bere tesitik jasoak dira, berarekin propio izandako elkarriketen bidez. Horietan Idoia Zenarruzabeitia, Miren Azkarate, Joseba García Bengoetxea eta Xabier Gabilondok lagundu didate”.

Liburua iazko irailaren 11n bukatu zuen egileak. Irailaren 5eko ETA-ren azken su-etena eta gero: “Ibarretxeren egungo pentsamendua bilduta dago. Erabakia euskal gizartearen baitan dagoela eta euskal indar politikoei gatazka bideratzea dagokiela berresten du. Ezinbestekotzat jotzen du prozesua giza printzipio etikoetan oinarritzea. Berradiskidetzearen bidea ezinbestez urratu behar dela dio, baina gakoa erabakitzeke esku-bidea aitortzea dela”.



“Lehendakari egiten” du izena lehen zatiak. Alabaina, 2005eko otsailaren 1eko gertakaria kontatuz hasten duzu.

“Geroa gurea da” esaldiarekin hasten da atala, lehendakariaren esaldia. Espainiako Kongresuan esan zuen hori, gaztelaniaz. Liburuan sarri agertzen da kontzeptu hori, liburuari funtsa ematen diona: “Etorkizuna herri honen erabakiaren esku dago”.

Nola laburbilduko zenuke Juan Jose Ibarretxeren ibilbidea eta kapital politikoa?

Zintzotasunean egindako ibilbidea da. Bere bidean hasiera-hasieratik oso garbi izan zuen kontzeptu hau: politika gizartearen zerbitzurako da eta politikaren oinarriak pertsonarengan daude. Lehendakariorde zenetik ideia argiak izan zituen. 1999tik 2009ra lehendakari kargua bete zuen, eta ibilbide horretan guztian ez zen mugitu hasieran urratutako ildoetatik.

Kongresuko gertakari historiko hura bere agintaldiaren erdian izan zen. Gogoratuko al zenuke unea?

Zapatero zen presidentea. Eusko Jaurlaritzak lehendabiziko Estatutua onartu zuen, *Ibarretxe Plana* deitutako Euskadiko Estatutu Politikoa Berria. Ez zen Konstituzioak aurreikusten zuen bidea urratu. Lehendakariak dio beste bat erabiliko dela eta berau eztabaidatuko dela, onartu edo ez onartu: “Ni orain etorri naiz, lehenago beste batzuk etorri ziren, eta etorkizunean ere beste batzuk etorriko dira” dio Espainiako Kongresuan. Esan nahi baitu: bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea onartua izateko zain egongo da beti herri hau.

Ibarretxeren hasieran Ajuria Eneako Ituna zegoen indarrean: “Ituna gaur subertsiboa litzateke” dio liburuan.

Ibarretxek gogorazten digu alderdi sozialistak eta alderdi popularrak hautsi zutela ituna. PPK lehenik, PSOEk segitzen dio, hark behartuta. Itunak biolentzia eta normalizazio politikoa bereizten ditu. Sinatzaile guztiak gatazka politikoa dela azpimarratzen dute, baita erabakia politika alorrean hartu behar dela ere, euskal gizartearen barruan.



“Liburuan sarri agertzen da kontzeptu hori, liburuari funtsa ematen diona: etorkizuna herri honen erabakiaren esku dago”.

Biolentziari amaiera emateko modua Estatuaren eta ETAren artean geratuko zela. Ordea, PP eta PSOE Alderdien Legea ekarriko zuen bidean abiatu ziren. Gatazka politikoa ukatuz, ETAren afera garaipen bitartez bukatzea iradokiz.

Aznarren PPK Espainiako Gobernua hartu zuen geroago. EAJk haren inbestidura babesteko akordioa gogoratzekoa da. Aznarren nolabaiteko borondatea ageri da. Lizarra-Garaziko Akordioaren garaia heldu zen gero.

Ibarretxeri, lehendakariorde zela, Jaurlaritza berriaren egitura antolatzeko egokitu zitzaion, haren funtzionamendua berritzea krisi garaian. Aznar agintera iritsi zen unean Ibarretxeri tokatzen zaio PPrekin akordio politiko-ekonomikoa lantzea –EAJko EBBko buru Arzalluzek eta Ardanza lehendakariak eskatuta–, eta EAJren eta PPren arteko inbestidura akordatu zuten. Hor bi kontzeptu daude: ekonomiaren esparrua eta barruko hartuemanak. Akordioa itxita zegoen, baina beste osagai

batzuk sartu ziren hogeitalau orduetan. Batzorde teknikoa biltzen da, izenpetzea baino ez da falta, baina Estatuaren boteretan beste zerbait gertatu da. Besteak beste, 1998ko Aznarren eta ETAren arteko negoziazioak daude. Dirudienez, unean PPren gobernuan joko ezberdinak daude. Dena den, ETAk su-etena bertan behera utzi ondoren, Aznarrek abertzaletasuna Jaurlaritzatik ateratzeko helburuz politika zehatza hartu zuen. Ordura arte lehendakariak eta Aznarrek hitz egiten zuten, nahiz eta Aznarrek publikoki gauza batzuk esan eta etxean bestetzek.

Lizarra-Garaziko Akordioan Batasunak Mitchell printzipioak sinatu zituen. Orduan ez ziren gaur beste aipatu izan halere...

Pentsa noizkoak diren Mitchell printzipioak eta noiz aipatu ziren Euskal Herriko bake prozesuan. EAJ, EA eta EHren akordioa izan eta handik bi urtera sinatu ziren. Osagai funtsezkoa zen eta da: ETAk Lizarra-Garazi garaiko su-etena bertan behera utzi zuenean, lehendakariaren hitzak erabiliz “Arnaldo Otegi buru zuen ezker abertzalearen ordezkariak amore eman zuen printzipio horien aurrean”. Loiolako elkarriketetan ere modu berean gertatu zen. Orain ez bezala, dirudienez.

Esan al daiteke hiru jarrera politiko nagusi izan direla euskal gatazka eta herri honen geroa bideratzeko?

“Lehendakariak proposatzen duenak ez du zentzurik, baina beste bide bat ireki daiteke, ezker abertzalearekin negoziatzea, kasu’ esan zuten egun politikan ari diren PSOEko batzuek”

Hiru jarrera dira, baina horien artean Ibarretxek ETaren jarrera iraganekotzat jotzen du, zentzurik gabekotzat. Berarentzat zentzu politiko osoa daukana hauxe da: herri honen geroan euskal indar eta espektro sozial guztiak biltzen dira, eta aldi berean, aginteak daude. Batetik Espainiako Gobernu eta Estatuko erakundeak, eta bestetik euskal erakundeak, Jaurlaritza eta Legebiltzarra daude. Lehendakariak beti esan du “gu ez goaz Madrilera gure proiektu batekin, gu Jaurlaritza eta Legebiltzarren babesa zeukaten proiektuak defendatzera joan gara”. Hedabideek Euskadiko Estatutu Politiko Berria, *Ibarretxe Plana* bezala ezagutarazi duten arren, Estatutua Legebiltzarren gehiengoak ordezkatutako borondate politikoa da.

Ibarretxek Eusko Legebiltzarra hobetsi zuen beti. Beste alderdiek, PSOEk bereziki, hoteletan biltzeko zeukaten joera agerikoa da liburuan.

Hori Ibarretxek publikoki aurpegiaratu zion PSOERI. 2002tik 2008ra arte oso ohikoa zuelako bere planteamenduak hedabideetan edo hoteletako prentsaurrekoetan agertzea, eta ez Legebiltzarrean. Horrek lotura dauka Estatutu Berriaren eztabaidarekin, alderdi sozialistak ukatu egiten baitzuen eztabaida. Estatutu Berriaren eztabaidan alderdi sozialistak ez zuen parte hartu. Aldiz, hainbat proposamen egin zituen, ahaztuak izan zirenak, Emilio Guevararen Estatutua, esaterako, hotel batean aurkeztu ondoren bertan gelditu zena.

Patxi Lopezi “ukazioak eta ezezkoak elkartu ditu beti PP eta PSOE, ez zerbaiti baiezkua emateak” aurpegiaratu dio une batez Ibarretxek.

Horiek beste prozesu baten garaian esanak dira: PSOE-Batasuna-Gobernu-ETaren arteko harremanetan bukatu zena. Gogoratu behar da Euskadiko Estatutu Politiko Berriaren bozketa 2005ean izan zela Legebiltzarrean. Jesus Egiguren eta Arnaldo Otegi beste bide bat urratzen ari ziren, Gobernuaren eta ETaren arteko harremanetan amaitu zena. Lehendakariak aipatzen du ez zela Estatutu Berriaren bidea zabaltu,

aitzitik, Zapaterok eta alderdi sozialistak Batasuna eta ETarekin beste harreman mota zabaltu zutela. Une horretan adierazpen oso bitxiak egin ziren, egileen izen eta abizenak hemerrotean daude –oraindik egungo politikan ari dira–; hauxe zioten: “Lehendakariak proposatzen duenak ez du zentzurik, baina beste bide bat ireki daiteke, ezker abertzalearekin negoziatzea, kasu”. Lopezi esandakoa Aznarri eta Zapaterori ere esan zien. Downing Street-eko bidea proposatu zien Ibarretxek, irtenbide politikoa landu beharra. Jaurlaritzarekin arazo politikoa bideratu beharrean, beste bide bat jorratu nahiago izan zuen Estatuko Gobernuak.

Ibarretxe kontsulta demokratikoa lantzen ari zen bitartean, Estatuak hobetsi zuen ETarekin negoziatzea.

Une jakin batzuetan PSOE eta Gobernuak nahiago izan dute beste bide bat jorratu, ez Legebiltzarrean indar guztien arteko bidea, finean Espainiako Kongresuan negoziatu beharko zena. Horrek momentu oso bitxiak izan ditu. Imanol Murua Uriaren *Loialako Hegiak* liburu gomendagarrian oso ondo jasota daude: azkeneko negoziazioak ez ziren bukatu Loiolan, eta ETaren su-etena ez zen bukatu Madrilgo aireportuko T-4ko leherketarekin. Alderdi sozialistaren, Batasunaren eta ETaren arteko beste negoziaketak izan ziren. Ginebrako elkarriketak, besteak beste. Nabaritzekoa da Ginebrako prozesua udal hauteskunde bezperan haustea. Horrek ere beste gauzak batzuk esplikatzeko ditu.

Gaur egun ere bizi ditugunak, beste modu batez bada ere.

Ginebrakoa 2007ko maiatzaren 21ean izan zen, eta 28an udal eta foru hauteskundeak ziren. ETaren su-etenen



Gasteizen euskarazko hauek ez galdu:

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETAN!

Gonbit-txartelak astebete lehenago.

ARRIAGA

- **Goazen itsasora!**
(ipuin kontalaria musikaz)
Maiatzak 13, 18:00-19:00

JUDIMENDI

- **Galaxietako liburutegia, zientzi lantegia**
Maiatzak 13, 17:30 (5-6 urte)
eta 18:30 (7-9 urte)

IPARRALDE

- **Ipuinak papiroflexiarekin**
Maiatzak 14, 11:00. Familia liburutegia
- **Bertsoaren saltan**
Ekainak 1, 19:00. Amets Arzallusekin

IBAIONDO

- **Txita polita, haurrentzako ipuinak**
Maiatzak 17, 17:00 (12-24 hilb.)
eta 18:00 (24-36 hilb.)

ARIZNABARRA

- **Lurra zaindu**
Maiatzak 18, 17:30 (4-5 urte)
eta 18:30 (6-7 urte)

IBAIONDO

- **Txakurrei buruzko ipuin kontalaria**
Maiatzak 24, 18:00 (6-10 urte)

PILAR

- **Haritza... hitza ari!** Ipuin kontalaria
Maiatzak 27, 18:00 (6-10 urte)

ARANA

- **Marilurrek 5.722.630 ipuin dakizki**
Ekainak 1, 18:30 (5-8 urte)

LAKUA

- **Sagardoa: elaborazioa eta dastatzea**
Ekainak 3, 18:30-20:00

IGNACIO ALDEKOA KULTURA ETXEA

Maiatzak 11, 16:00.

Iñaki Lasa Barandiaran. Ipuin kontalaria Udaberria euskaltegiaren 35. urteurrena.

ATARIA

Ingurumenaren Mundu Eguna

Ingurumenaren jaia

Ekainak 5, Olarizuko etxaldea eta zelaiak

**Etorri eta gozatu
gurekin!**



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

“Patxi Lopezen Jaurlaritza zonbia da”

“Txema Monteroren hitzak hartuko ditut abiapuntutzat nire iritzia emateko: ‘Jaurlaritza honen politika ezerezean bizitzeko modua da, bizi nahi eta ezin bizi’. Lopezen gobernuak hartutako bideak izaera hori eman dio: airean dabilen erakundea da, zonbi bat. Ez dago bizirik baina iraungo du legealdia. Gobernu honi osaeraren beraren jatorritik datorkio izaera. Hauteskundeak galdu zituen PSE-EEk gobernu hartu zuen, beste galtzaile (PP) baten babesarekin. Jaurlaritza honek funtsezko politikan, ekonomian nola baketze

alorrean, ezin du erabakirik hartu. PP eta PSE lehenagoko Jaurlaritzaren politikaren kontra jotzeak batzen ditu. Jaurlaritza hau ahula da, besteak beste, Zapatero presidenteari beharra iristen zaionean, legealdian irauteko, Estatu-ko aurrekontuak EAJrekin ziurtatu behar izan dituelako. Zapaterok babesa behar izan duenean Jaurlaritzaren aurrean agerian geratu da. PSE-PP misto horren bidez, Lopezek agintean segitzen du baina ahituta, politika egiteko gaitasunik gabe. Bere gobernu zonbia da”.



haustura ofiziala, ekainaren 5ean gertatu zen, handik bi astera, nahiz eta *de facto* lehenago hautsia izan. Orduan lege bat ateratzeko erreflexioa egin zuen Ibarretxek. Legebiltzarrean beste garai bat hasi zen ordea, Aznarren garaian hasi zena jada, 1998ko ekainean Aznarrek planteatu zuen estrategia komunikabideen bidez lantzen zuena. Hedabideei haxe esan zien: “Estrategia eta helburua aberztasuna EAEko agintetik kentzea da”. Estrategia PSOerekin landu zuten alderdi espainiarrek gehiengo izateko eta alderdi nazionalistak Jaurlaritza kentzeko. Salbuespenak salbuespen, *La Vanguardia* kasu, hedabide nagusi gehienetan horrela idatzita dago: “*No es el bálsamo de fierabrás que cura de forma inmediata pero aplicada en condiciones suficientes nos llevará hasta...*”. Kazetari haiek guztiak prentsaurreko berean egon ziren, Hong Kongen.

Bitxia da PPK gobernu garaian nazioarteko bidaletan euskal politikaz jarduteko zeukan ohitura.

Hori da ezaugarrietako bat. Redondo Terrerosen eta Mayor Orejaren arteko estrategian ageri da. Estrategiak 2001eko EAEko hauteskundeetan porrot egin zuen, baina horren ondorioz, Ibarretxek planteatu zuenaren aurrean, haxe esan zuten: “*La sociedad vasca no está madura, pero mejoraremos la alternativa*”. Hortaz Alderdien Legea egitea erabaki zuten, Legebiltzarreko mahaia eta Lehendakaria auzitara eramatea eta berarekin batera Arnaldo Otegi, Fernando Barrena, Patxi Lopez eta Rodolfo Ares. Horrek ekarri zuen Alderdien Legea egoera ezberdinetan aplikatzea. 2005ean, kasu, Aukera Guztiak-en hautagaitza debekatzeari, baina EHAKri atea zabaltzea. Hori izan zen hasierako bidea, eta une batez zerrenda batzuk legalak izatea eta beste batzuk ez izatea erabaki zuten, ANVren kasua. Horiek negoziatioak dauden momentuarekin bat datoz. Azken hauteskundeetan horietako inor ez egotea erabaki zuten, 2009an alderdi espainiarrak Eusko Legebiltzarrean gehiengo izateko.

Ibarretxek proposatutako Herri Kontsultak porrota jaso zuen nolabait. Bera ere galtzaile atera zen nolabait. Nondik begiratzen den. Eskoziaren bide horretan ari da. Eskoziaren kasuan, galderaren edukia planteatu

zen. Eskozian ez da gauzatu eta aurtengo hauteskundeetan ikusiko dute planteatzen duten ala ez. Gurean badago sententzia bat “ezin dela egin” dioena. Lehendakariak “lehenago edo beranduago, kontsulta egingo da” dio. Zenbat urte barru? Ibilbidea norabide horretan trazatuta dago: geroa gurea da. Hemen bide bat urratu eta gelditu zen beste puntu batzuetan. Euskadiko Estatutu Politiko Berria onartuta dago Eusko Legebiltzarrean gehiengo osoz. Trami-tera onartu gabe dago Espainiako Kongresuan, baina hor dago. Lehendakariak dioenez, Legebiltzarrak ezin dio ezer ezarri Kongresuari, baina alderantziz ere ez. Kontsultari buruz Auzitegi Konstituzionalak ebatzi du, baina ezarritako sententziak badu zerikusia Kataluniako kasuarekin, Estatutaren gainean emandako hainbat sententziarekin. Lehendakariak haxe dio: urte askotako bidea gelditu dute, baina egunen batean bide hori gauzatuko da.

Ibarretxe ikusten duzu berriz ere lehendakari gai?

Nik ez dut horretaz ezer esaterik. Berak liburuaren bukaeran haxe esaten du: “Esan beharreko gauzak esan nituen nire etxean eta zegokidan lekuan, Legebiltzarrean”. ■

argia.com webgunean, Otegi eta Maragallen inguruko pasarteak.

C'est un travail important.

Lan garrantzitsua bat da.

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala
FRANTSESA | EUSKARA | GAZTELANIA | INGELESA | ALEMANA

11itzulpen
www.11itzulpen.com



argia


www.argia.com/multimedia

*bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean*



Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.




Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.



Film laburrak

Euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat bi astean behin. Euskaraz edo euskarazko azpitu-luekin.

Gida-baimena

Hizkuntz eskubideak atzera-martxan

Legeak eskubide hori aitortu arren, EAEn ezin daiteke gida-baimena ateratzeko azterketa praktikoa euskaraz egin. Araban eta Gipuzkoan beti izan da hala. Bizkaian, berriz, aukera hori bermatuta egon da hamarkada batez, baina desagertu egin da urtarilaz geroztik. Zenbait autoeskolak, eta Jaurlearitzak berak, konponbidea eskatuko diote Trafiko Zuzendaritzari.

Testua eta argazkia:

UNAI BREA

IAZKO EKAINEAN, Beasaingo (Gipuzkoa) Igartza autoeskolako hiru ikaslek euskaraz egin nahi izan zuten gida-baimena ateratzeko azterketa praktikoa, baina azkenean gaztelaniaz egin behar izan zuten. “Trafiko Zuzendaritzari astebeteko aurrerapenaz ohartarazi behar diogu zein ikasle bidaliko dugun azterketa-
ra”, esplikatu digu Joxe Luis Iturriotz autoeskolako ugazabak, “eta hiru hauen kasuan euskaraz egingo zutela adierazi nion Zuzendaritzari”.

Azterketaren egunean bertan aztertzaileen koordinatzaile bat azaldu zitzaion, eta esan zien azterketa gaztelaniaz egitea edo etxera bueltatzea zitzutela aukera bako-
rrak. Gertatutakoa ikusita, Iturriotzek kexa helarazi zion Gipuzkoako Trafiko Zuzendaritzari. “Esan zidaten eskumena ez zegoela beraien esku eta Madrileran bidaliko zutela nire kexa, ez zidaten beste erantzunik eman”.

Aldi berean, Hizkuntz Eskubi-
deen Behatokiarekin harremanean jarri zen Igartzako jabea, galdetzeko ea legeak zer dioen gaiaz. Behatokiak erantzun zion trafikoa arautzen duen legediak ez dioela ezer zehatzik hizkuntzei buruz, eta hortaz arau orokorragoetara jo behar dela. Kasu honetan, Euskararen Legera. Horren arabera, herritarrek eskubidea daukate beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean gida-baimenaren azterketa praktikoa egiteko.

Eskubide hori ez dago bermatuta, agerikoa denez. “Aztertzaile euskaldun bakarra dago Gipuzkoan”, dio Joxe Luis Iturriotzek, “baina liberatuta dago lan sindikaletarako. Badago beste bat euskaraz nola edo hala moldatzen dena, baina edozein kasutan, azterketa euskaraz egitea aztertzailearen borondatearen araberakoa da; ez dago eskubidearen benetako bermerik”.

Igartzaren ekimenez, Goierriko Autoeskolen Elkarte Profesionaleko zenbait kidek idatzi bat prestatu dute, Gipuzkoa osoko autoeskoletan sinadurak bildu ostean herrialdeko Trafiko Zuzendaritzari bidaltzeko asmoz. Eskatzen dute azterketa praktikoa euskaraz egin ahal izateko –azterketa teorikoa egin daiteke dagoeneko– mekanismoak jar daitezela.



Bizkaian, lortutakoa berriz galdu

Une honetan, Gipuzkoako egoera euskal lurralde guztietan ematen den bera da, baina badago ñabardura garrantzitsua: besteetan ez bezala, azken urteetan Bizkaian azterketa praktikoa euskaraz egin ahal izan da oraintsu arte. Data zehatzak gogoan ez dauzkan arren, gutxienez hamarkada batez hala izan dela diosku Unai Zuluagak, Igorreko Arratia autoeskolako buruak. Zer edo zer badaki gaiaz: batik bat bera-
ren ekimenari zor zaio azterketa euskaraz egiteko aukera egon izana.

“Durangaldeko autoeskola bate-
gaz hasi ginen historia honetan”, gogoratu du Zuluagak, “hura autoes-
kola handia zen eta azterketa euska-
raz egingo zutela abisatuta bidaltzen zituen ikasle batzuk. Zuzendaritzak, ikasle haiei, itzultzaileak ipintzen zien auto barruan. Imajinatu egoera: ‘a la izquierda’ aztertzaileak, ‘ezkerretara’ itzultzaileak. Illogikoa zen”.

Zuluaga ez zen prest agertu hura onartzeko, eta presio egin zuen itzultzaile sistema kentzeko. Baita lortu ere. “Esan egin nien nire ikas-
lerik ez zela joango azterketa holan egitera, denok garela elebidunak eta gaztelania ere ulertzen dugula, badakigu *izquierda* ezkerre dela, baina horrelako azterketa batean norbera urduri egoten da eta hobe-
to konponduko da jatorriko hiz-
kuntzan berba egiten badiote”. Azkenik, ipini eta gutxira kendu



zituzten itzultzaileak, Zuluagari berriz egiten dio huts memoriak baina uste du hark ez zuela pare bat urte baino luzeago iraun. 90eko hamarkadaren amaiera zen.

Handik gutxira, azkenik, Bizkaian aztertzaile euskaldunak jartzea lortu zuen Arratia autoeskolakoak. Trafiko Zuzendaritzak hiru aztertzaile bidali zituen euskaltegira, eta ikasi zuten, Zuluagaren berbetan, azterketa egiteko adina euskara behintzat.

Laster azalduko ditugun arrazoiengatik, Bizkaian ez du ikasle askok azterketa praktikoa euskaraz egitea eskatu, baina eskatu dutenek aukera hori bermatuta eduki dute azken hamarkadan, gutxi gorabehera. Aurtengo urtariletik, ordea, egoera berriz itzuli da lehengora, alegia, beste edozein euskal lurraldetan dagoenera: erdaraz edo etxera. Unai Zuluagak azaldu digunez, azterketak euskaraz egin izan dituzten aztertzaileek erabaki dute gehiago ez egitea, administrazioak lan horrengatik zelanbaiteko aitortza egiten ez dien bitartean. “Kontua da euren borondatez egon direla lan hori egiten, eta ez dutela ikusi Espainiako administrazioaren aldetik ezelango ordainik”. Beraien aldarrikapenak zehatzago ezagutu guran, aztertzaileekin

harremanean jartzen saiatu gara, baina momentuz hedabideekin berbarik ez egitea erabaki dute.

Unai Zuluagak, bitartean, eskaria bidali dio Bizkaiko Trafiko Zuzendaritzari, azterketa euskaraz egiteko aukera bermatu dezan berriz, baina ez du erantzun azkarrik espero: “Lehenengo aldiz aztertzaile euskaldunak ipintzea lortu genuenean bezala, Dabid eta Goliaten arteko borrokan hasi beharko gara ostera ere. Zer jazoko da? Ez dakit. Beharbada itzultzaileak ipiniko dituzte berriro”.

Kasu honetan, presioa ez zaie autoeskoletatik bakarrik iritsiko EAEko Trafiko Zuzendaritzari. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak ere asmoa du haiekin hitzarmena sinatzeko, gida-baimenaren azterketa praktikoa Araban, Bizkaian nahiz Gipuzkoan euskaraz egiteko eskubidea bermatze aldera.

Ikas-materialik ez luzaroan

Horretarako aukera eduki arren, Bizkaian, urte askoan, oso ikasle gutxi egin du azterketa praktikoa euskaraz (gauza bera esan daiteke teorikoaz). Gehienak, zer esanik ez, Arratia autoeskolakoak. Arestian

aipatu dugun Beasaingo Igartza autoeskolak berak iaz egin zuen estreinako eskaria, ia ikasle guztiak euskaldunak izanda ere. Arrazoa sinplea da: orain gutxi arte, gida-baimena ateratzeko ikasketa osoa erdaraz egin behar zen, euskarazko materialik ez eta. Ez dirudi logikoa prozesu osoa gaztelaniaz egin eta gero azterketak euskaraz egiteak.

Salbuespena, horretan ere, Arratia autoeskola izan da, Unai Zuluagaren borondateari esker. Azterketa teorikoak euskaraz egiteko aukera 1995etik dago EAE osoan, baina ikasteko materialik ez zegoenez, urte hartan bertan Zuluagak berak ekin zion, bere kasa, prestatzeari. Urte batzuk geroago azterketa praktikoa ere euskaraz izatea lortu zuenez geroztik, ikasketa-prozesu osoa, hasi eta bukatu, euskaraz egin ahal izan dute Arratia autoeskolako ikasleek. “%70 euskaraz aurkeztera heldu gara”.

Hala izan zen hainbat urtez, Debagoieneko Mankomunitatea, lehenik, eta AEOL izeneko argitaletxe valentziar bat, ondoren, Zuluagaren lana ezagututa, tartean sartu ziren arte. Azkenik, hiru aldean elkarlanari esker, AEOLek gida-baimena ateratzeko ikas-materiala argitaratu du euskaraz, hein handi batean Zuluagak egindakoa baliatuta. Joxe Luis Iturriotzek gogorarazi digu hala ere, oraindik euskaratu barik dagoela baimen espezifikoko ateratzeko erabiltzen den materiala.

Orain dela bi urtetik hona, material hori eskuragai dute EAEko autoeskola guztiek, eta askok eskaintzen dute. Hala ere, ikasleen nahia asko aldatzen da eskualdetik eskualdera: Sopolako autoeskola batean esan digute oraingoz pertsona bakarra joan zaiela gida-baimena euskaraz ateratzeko eskatzen. Uribe Kosta bezalako eremu erdalduntan, gaztelania hobesten dute oraindik euskaldunek eurek. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB

Hizkuntzen sedukzioa edo sedukzioaren hizkuntza

GOIBURU HORI zeukan Gemma Sanginés bilbotar psikologoak Udaletako Euskara Zerbitzuen III. Topaketetan emandako hitzaldiak. Sanginés saiatu zen hausnartzen nola lortu genezakeen jendea euskarara hurbiltzea. Ondoren aletxo batzuk baino ez ditugu azalduko:

- **Identitatea:** Hitzunak euskarara hurbiltzeko erabili ohi den elementu oso potentea da, baina batzuentzat baino ez du balio. Hizkuntza normalek ez darabilte identitatea jendea erakartzeko.

- **Zama:** Mekanismo perbertsoak erabili izan dira euskarara erakartzeko. Esate baterako, honelako esanak: “Zure gain dago euskara”. Herritarrari esan zaio norberak duela euskara erabiltzeko ardura eta besteak erakartzekoa. Zenbat lan jarri diguten!

- **Gatazka:** Gure hizkuntza gatazka ez da ezkutatu behar, ageriko egin baino. Gure hizkuntzan egiten ez digunari adierazi behar diogu hark egiten duela herren, bestearen hizkuntza ez dakielako. Norberaren hizkuntza erabiltzea ez da edukazio txarrekoa.

- **Errazegi:** Seduktorea da horrenbeste ematea? Adibidez, gauza



UDALTOP

bererako diru-laguntzak ematea? Erraztasunak ez du hizkuntza erakargarriago egiten.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Islandiaz ikasi

Herrialde txiki hori, Islandia, finantza krisitik nola atera erakusten ari zaigu. Hark aukeratutako bideak ez dauka zerikusirik Espainiak, Frantziak edo Euskal Herriak egindakoarekin. Islandian ere, banku sistemaren gehiegikeriak izan ziren 2008ko krisiaren arrazoiak: bankarien gehiegizko diru-gosea; jarduera publiko eta pribatu txarrak, ustelkeria tartean; deserauketa bankarioa; alor publikoa murrizteko burugogorkeria; banku aktiboen biderketa; higiezinaren aktiboen aurrekaririk gabeko igoerak; pasiboen arriskutsuki kaptatzea interes tipo oso altuetan ordainduta, herrialdean eta baita kanpoan ere. Islandiar askorentzat, eta analista askorentzat ere bai, krisi hura arpilatzea izan zen. Munduko per capita errenta altuenetakoa zeukan ekonomia oparoa ahitu zuen.

Amerikarren edo gurearen antzeko krisia. Erantzuna aldiz, oso bestelakoa izan da. Biztanleak mugitu egin dira eta 2009ko abendutik hona dagoeneko bi erreferendum egin dituzte, azkena joan den astean. Bietan, banku britainiar eta herbehereetarrei, islandiarren %90ak esan die ez dutela poltsikotik ordainduko 4.000 milioi euroko zorra. Banku horiek baliatu ziren Islandiako banku batean zuten gordailuaren %15eko interesaz, eta porrot egin zuenean, zorra ordaintzea eskatu zuten. Islandiako Gobernuak bidea egin zion porrotari eta presidenteak hala adierazi zuen: “Jendeak ez dauka zertan bankuen zorakeriak ordaindu”. Banku horren eta beste batzuen porrota onartu zituen, eta gainera, arduradun nagusiak jazarri eta atxilotu zituen.

Noiz ikusiko ditugu hemen bankariak eta kutxetako kudeatzaileak atxilotuta egindako arpilatzeari? Noiz egingo dute erreferendum deialdia bankuen zorarekin zer egin erabakitzeko? Ez gaude Islandian!

Juan Mari Arregi

BAHEA

Hermes aldizkarian

Bernat Joan i Marik esanak:

“XXI. mende hasieran taxutu den mundu globalizatua euskararentzat edo katalanarentzat askoz hobea da, gure historiako hainbat garaitan jasan dugun autarkia (edo erdi-autarkia) baino.

Europak gure hizkuntza kontuan har dezan, gure hiztun komunitateak estatu kide bihurtu behar badu, aterabide bakarra independentzia politikoa da.

Europako Batasunean, estatu elebakarrak aurkitzea bezain zaila da mapa politikoeekin bat datozen mapa linguistikoak aurkitzea”.

Joxean Muñozek esanak:

“Azken produktua euskaraz, erdaraz edo hitzik gabea dela ere, komunikazio jario etengabearen zirkulatuko du. Hizketa horretan euskaraz parte hartzea da sustatu eta bultzatu behar dena”.

Anjel Lertxundik esanak:

“Onkeriazko diskurtso posibilista ari da nagusitzen: ezin da behartu, gaizki ikusia dago euskara hitz egitea eskatzea”.

Hazkundearen ekonomia? Ez, eskerrik asko

TXERNOBYLGO GUDUA dokumental handia ikusi berri dut Espainiako telebista publikoaren (La2) webgunean. Gazteleraz ikusi nahi duenak Interneten *La Batalla de Chernobil* bilatzea du; frantsesez, ordea, *La bataille de Tchernobyl*. Duela bizpahiru urte ez zen samurra irudikatzea “telebista kartara” nolakoa izango zen eta orain, apurka, Interneteko gero eta eskaintza zabalagoarekin eta gure hautu zehatzekin ia konturatu barik ari gara indarrean jartzen telebista ikusteko eredu berri hori. 2006an Bartzelonara egindako bidaia batean gogoan dut nola mintzo zitzaigun Vilaweb-eko zuzendari Vicent Partal Interneteko telebistaz: “Azken hamar urte hauek komunikazioaren munduan Internetek batez ere prentsa idatzari eragin dio eta datozen hamar urteetan ikusentzunezko munduan eragingo du batez ere”. Bete-beteen asmatu zuen, baina hauek hurrengorako hausnarketak dira.

Kontua da Txernobylgoaren 25. urteurrena betetzen den honetan (apirilaren 26an) ezagutzen ez nituen datu eta istorio ugari jarri dizkidala eskueran dokumentalak. Bide batez, Fukushimaoari are eta begi zorrotzagoekin begiratzeko hautua berrindartzen du. Datu eta ikuspegi asko daude, beldurgarriak gehienak, urteetan energia nuklearraren loby-a ondo estaltzeaz arduratu dena. Baina Txernobyl eta Fukushimao erreaktoreetako pitzaduretatik erradiazioa nola, informazioa ere lau haizetara barreiatzen ari da azkenean, zoritarrez beranduegi eta geldoegi.

Datu batek harritu eta izutu ninduen beste askoren artean: Txernobylgo leherketaren ondorengo egunetan, bigarren leherketa baten beldur itzelez egon zen istripuaren jarraipen lanetan ari zen zientzialarien batzordea eta berau gertatu izan balitz, gaur egun Europa osoa espazio ez-bizigarria litzateke.



Dokumentala ikusteko hautua egiten duenari ez zaio garbatuko.

ENERGIA eredu zalantzan da berriz ere Japoniako hondamendi nuklearraren ondoren: energia fosilak badoaz, energia berriztagarriek ez dute behar adina ematen, eta nuklearra indartsua bai baino arriskutsuegia da. Non da irtenbidea? “Energia nuklear seguruan”. Munduko aberatsenak beren itsuan jarraitzen dute, oximoron hori da hahemenka indartu nahi dena, hori bai, gero eta zailtasun handiagoekin. Baina gaur egun energiaz jardutean funtsean ekonomia ereduaz ari gara, mundu garatuaren ekonomia eta gizarte ereduak da krisian dagoena.

Ez da hori, ordea, zabaldu nahi den irudia. Hemen finantza krisi sakona dago, honek eragiten du ekonomi krisia eta hazkunde ekonomikoaren bidea berreskuratuko dugunean, dena konponduta. Hori da zabaltzen ari den gezurrezko ikuspegia.

Finantza krisia, energia krisia, elikagaien krisia, krisi klimatikoa... Denak elkar lotuta daude eta ez da egiazko irtenbiderik izango guztiei aldi berean heldu barik. Eta globalki aztertuta, egia esan, hobekuntza handirako zantzu handirik ere ez da epe motzerako, besteak beste, hazkunde ekonomikoa humanitatearen garapen ereduaren ardatz izaten jarraitzen duelako. Herrialde aberatsenak ezinean dabiltzanean, garapenean dauden herrialdeak datoz indartsu gorpil beraren gainean.

Hauteskunde garaiotan jasangarritasunez goxatuko zaizkigu belarriak enegarrenez, baina ekonomia jasangarriaren ereduak gero eta arrakala gehiago erakusten ditu: burbuila ekonomikoak, finantza, lehortea, migrazio erraldoiak, Fukushima, oraindik orain Txernobyl, herrialde arabiarretako errebolta... Nekez topatuko da irtenbiderik bide horretan kale itsua dagoela ohartu gabe, gaitza eten bako hazkunde ekonomikoaren eredu honetan dagoela benetan gizarteratu gabe.

Larrialdi unean segurtasunarena da garrantzitsua, Fukushimaoak erakusten duen moduan. Baina arbola horren atzean dagoen basora ere heltzea funtsezkoa da, eredu aldaketak halakoen beharrik ez duela aldarrikatu eta erakusteko. Eta arboren atzean daude, besteak beste, gure erraustegiak, superportuak eta abiadura handiko trenak.

ZORIONEZ, altermundialismoaren ohiko esparruetatik harago ere gero eta indar handiagoz ari da sustraitzen hazkunde ekonomikorik gabeko irtenbidearena. Meinhard Miegel soziologo alemana da horren adibideetako, urte luzetan Alemaniako CDU alderdi demokratikaren idazkari nagusi eta Sajoniako lehen ministro izandako Kurt Biedenkopf-en aholkulari izandakoa. 2010ean argitaratutako *Hazkunderik gabeko ongizatea* liburuan azaltzen ditu Miegelen bere ideia hauek, eta bitxia egin zait ikustea UPyD-ko eurodiputatu Francisco Sosa Wagner-ek nola laudatzen dituen Miegel eta bere tesi nagusiak. Lastima baina, 2008ko hauteskunde programan Espainian energia nuklearra erabiltzearen aldeko hautu argia egiten zuen –PPrekin batera– alderdi bakanetakoa zen berea.

PELLO ZUBIRIA

Txernobylek zerbait ona utzi zigun: CRIIRAD taldea

Fukushimako zentral atomiko suntsitutik barreiatu erradioaktibitatea Frantziaraino iritsi zela jakinarazi zuen martxo bukaeran CRIIRAD erakundeak. Eta hala zen. Txernobyngo hondamendiaz lobby nuklearrak ezkutaturiko informazioak bildu eta plazaratzeko sortua, elkarte independente horren hitzak gaur urrea balio du.

1987KO UDAN SUITZAKO LUGANO aintziraren edertasunari begira zegoen bikote euskaldun gaztea, albotik kazetari helvetiar ezagun batek ohartarazi zienean hango uretan arrantzan aritzea debekatuta zegoela: “Txernobyldiko hodeiak kutsatuta dago”. Txernoby? Baina hori ez al zegoen, bada, txit urruti, Sobiet Batasunean barrena?

Espainiaren mendeko euskaldunek ez dute sekula jakin zenbat erradioaktibitate iritsi zitzaizen 1986ko maiatz hartan. Frantziako herritar gehienek ere hasieran ez. Baina Alemania eta Suitzarekiko muga ondoakoak konturatu ziren bitxikeria batzuez. Altsaziako nekazariak, esaterako, ohartu ziren beren azokak zabalik ziren bitartean, mugaren beste aldekoek, alemanek, hilabete batzuetan debekatuta eduki zutela barazkiak saltzea. Fronteraren miraria menturaz?

Miraria baino, agintarien erabakia. Pierre Pellerin medikuntza irakaslea zen garai hartan *Service Central de Protection contre les Rayons Ionisants* (SCPRI) zerbitzu publikoaren buru. 1986ko apirilaren 26an lehertu bazen Txernobyngo 4. erreaktorea, 29an iritsi zen hodei erradiatioduna Frantziaraino. Maiatzaren 1ean Hexagonoko, zentral nuklear guztien inguruetan atzeman zuten kopuru nabarmenetan.

Pellerinek berehala esango zuen garrantzirik gabeko arrastoak zirela. Polonia, Danimarka, Suedia, Norvegia, Britainia Handia, Alemania, Holanda, Austria, Italia, Grezia... denetan hartu ziren neurriak, batik bat elikadurari dagokionez. Frantzia ez. Horren aurrean, italiarrak kutsadura kontrolatzen hasi ziren Frantziarekiko mugetan.

Maiatzaren 6an Frantziako gobernuak plazaratu zuen agiri historiko bat, non esaten baita: “Frantziaren lurraldea, hain urruti egonik, Txernobyngo istripuak sortu dituen erradiatiodatik erabat libre geratu da”. Askoz beranduago, 2001ean, epaileek agindu miaketa batean aurkituko zen paper bat Barne Ministeriokoa, zeinetan idatzita dagoen eskuz: “Badauzkagu datuan zabaldu ezin ditugunak”. Ordurako, Kortsikako artalde baten esnetan erradioaktibitatea neurtuta Europak baimendutakoa halako 20 eman zuen.

Egun horietan sortu zen Erradioaktibitatearen Ikerketa eta Informazioarako Batzorde Independentea (CRIIRAD, frantsesezko sigletan). Elkarte txiki honen eta Parisko agintarien arteko sokatira gogorra izango zen ondorengo urteetan.

2002an CRIIRADek argitaratu zuen Txernobylek Frantzia eragindako kutsaduraren atlasa. Harrabots handia egin zuen, besteren artean

Argazki txikikoa Roland Desbordes da, CRIIRADeko presidentea. Frantzia hondakin nuklearrez eztabaida publikorik antolatzekotan, sarri deitzen zaio Desbordes, berdin telebistan albistegi nagusi batean aritzeko edo kutsadura erradioaktiboarekin arazoak dituen herri bateko biztanleei mintzatzeko. Argazki handian Eric Guéret zinegilea, kamera eskuetan, Rodano ibaiko uraren kutsadura neurtzen ari den CRIIRADeko teknikaria filmatzen ari da. Une horretan *Déchets, le cauchemar du nucléaire* (Hondakinak, nuklearren amesgaiztoa) dokumentala egiten ari ziren. Espainolez *La pesadilla de los residuos nucleares* bataiatua, berriki La 2 kate publikoan emana dute *La batalla de Chernobil* dokumentalaren ondotik. Bi film horiek eta CRIIRADeko salaketak bilduz dituen *Tchernobyl: le mensonge française* eragin handia izan dute Frantziako herritarrek nuklearrez duten iritzian.


ikusten zelako bai Kortsikan eta bai Hexagonoaren hego-ekialdean kutsadura larria gertatu zela. Informazio horiekin, tiroideetako minbizia jasaten ari ziren asko elkartzen hasi ziren. Azkenerako 400 gaixo bildu ziren eta agintariak, Pellerin barne, auzitara eraman zituzten.

Eskandalua baretzeko, gobernuak aldaketa sakonak egin behar izan zituen nuklearrak kontrolatzeko egituretan. Horrela sortu zuten *Institut de Radioprotection et de Sécurité Nucléaire* (IRSN), Espainian baliokide duen *Consejo de Seguridad Nuclear* baino askoz independenteago eta sinesgarriagoa dena. 2003an IRSNk argitaratu zuen Txernobylek Frantzia eragindako kutsaduraren atlasa... aurretik CRIIRAD txikiak azaldutakoaren kasik berdina!

Herritarrak garaiz babestu

CRIIRAD ez da erakunde antinuklear bat, hori garbi adierazten du beti Roland Desbordes presidentek. 4.700 bazkide dauzka eta dozena bat langile, gehienak erradioaktibitate aferetan adituak. Homologatutako laborategi bat dauka martxan kutsadura erradioaktiboa aztertzeko eta urteotan 1.000 ikerlanetik gora burutu ditu, asko udal eta herri elkargoen enkarguz.

Erakundea finantzatzen da bazkideen kuotekin eta aipatu ikerlanak



egiteagatik kobratzen duenetik. Hala, Txernobylen eraginez lehen aipatu dugunaz gain, Frantziako eta Europako kutsadura erradioaktiboen atlasak egin ditu, zenbait lantoki nuklearrek zoruan, airean eta ibaie-tan zabaldutako kutsadurez, eta abar luzea. Valence hirian dauka egoitza eta Rhône-Rodano ibarrean aireko zein ureko erradiaktibitateak neur-tzeko gune egonkorak dauzka.

Desbordesek honela definitu du CRIIRADen ahalegina: “Helburu-tzat daukagu gure erkideak oharta-raztea teknika, kutsadura zein hon-dakin bakoitzak dauzkan arriskuez. Ikerketan sartuta gaude informazioa modu independentean zabaldu ahal izateko”. Erreaktore zaharren kutsa-dura zaintzeaz gain, gertutik eta kri-

tiko aztertzen dituzte orain nuklear-zaleek sustatzen dituzten belaunaldi berrietakoak, uranioaz gain pluto-nioa usatzen dutenak bidenabar.

Frantzia da zentral nuklear gehien dituen herrialdea eta *lobby* nuklearra sendoen daukana, baina CRIIRAD-ek lortu du errespetu handia bere lan serioarekin. Duela bost urte, Txernobyngoaren 20. urteurrenean, *Tchernobyl: le mensonge français* (Txernobyl, gezur frantsesa) erakutsi zuten tele-bista frantsesetan. Filmak hein handi batean biltzen ditu elkarte honen ikerketen emaitzak. Bost urte geroa-go, berriro erakutsi dute telebista publiko frantsesean... baina oraingo-an Txernobyngoaren 25. urteurrena egokitu da Fukushima leherketen haramunarekin.

CRIIRADekoak Fukushima krisian beren lan ildo nagusietan zentratu dira: kutsadurari buruzko informazioa eskuratu eta zabaltzean, funtsean Frantzian, baina Internet-i esker mundu osoaren eskueran. Greenpeace erakundearekin eta *Sciences et Avenir* aldizkariaren zuzen-dari Dominique Leglu bezalako kazetari bakanekin, lehen mailako informazioak eskaini ditu.

Hasteko, Frantzian bere tresneria-rekin CRIIRADek aurkitu ditu Japo-niatik haizeak ekarritako erradioakti-bitatearen aztarnak. Bigarrenik, horien interpretazio zorrotza egin du bere buletinetan, alarmismorik gabea baina zorrotz. Garbi adierazi die herritarrei arnastutako airean eta edateko urean aurkitutako erradio-aktibitate mailak benetan apalak direla, arriskurik gabek. Barazki eta elikagaiak ere oro har lasai jateko moduan daudela.


Baina CRIIRAD hasieratik kezka-tu da Japoniako herritarrekin. Gogo-an izanik zer nolako kalteak eragin zizkion Txernobyngo erradiazioak Ukraina eta Belorrusiako jendeari garaiz egoeraren berri ez jakinaraz-teagatik eta babes neurririk ez har-tzeagatik, Fukushima inguruko herritar ebakuatu gabeei informa-zioa eta laguntza garaiz emateko eskatu die ozen agintariei.

CRIIRADekoak ez ditu kontsola-tu aurrikuspenetan arrazoi izanak. Apirilaren 12ko buletinak dio: “Adi-tuak kalkuluetan ari dira, herritarrak sufritzen. (...) Presazkoa da arriskuak neurtu eta babes neurriak hartzea. Hobeto esanda, duela 4-5 aste zen hori presazkoa! (...) Askoz lehenago babestu behar zuten jendea”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Jose Ignazio Ansorena

Enfasia

Ekitaldi publiko batean agintari erdaldunak emango zuen plastadaren aurretik, konpromiso, euskarazko hitz gutxi batzuk irakurri behar zituen. Agurra, baina, bere

kasa egiten ausartu zen:

– Euskaldunak eta euskaldunok.

Erdarazkoa abiatu zuenean konturatu nintzen bere kabuzko itzulpena egina zuela alproja kalamidadeak:

– *Vascas y vascos*.

* * *

Orain gutxi, telebista programa fatxa ugarietako batean Espainiako akademiko bati galdegin zioten zuzena ote zen erdarazko esamolde hori. Akademikoak, bere goi jakintzaren luma guztiak ondo hanpatuta, kategoriko erantzun zuen: ez da zuzena, espainolak maskulinoa denentzat erabiltzeko arau eta ohitura duelako, maskulinoa delako markarik gabeko generoa.

Zuzentzaileak, ordea, gaizki zuzendu zuen. “*Vascas y vascos*” ez da nahitaezkoa. Baina zuzena izan daiteke. Edozein hizkuntzak aukera ematen duelako enfasi bereziaz zerbait azpimarratzeko eta bereizteko. Horixe da kontua: enfasia zertan jartzen dugun. Mende askotan barrena egin ez den ñabardura, orain egin eta egitea nahi dugun edo ez.

Hizkuntza bizimoduarekin lotuta doa beti. Orain artekoa zeinekin lotuta joan den ez da dudarik: gizonezkoek agintzen duten soziedade ereduarekin. Eta horretaz konturazteko enfasiaren erabilpen honek mesede egiten du. Batez ere, hizketa modu ez-sexista, gure politikariek ez bezala, era txukunean erabiltzen badugu.

* * *

Bizitzako beste kontuetan ere zertan jarri behar genuke orain enfasia? Edozein sozietatek, isilean eta era inplizituan, kide guztiek onartzen dituzten hitzarmen eta akordio asko ditu oinarri eta zutabe, oso pixkana aldatuz doazenak. Izango dira hitzarmen



DANI BLANCO

horiek hautsiko dituztenak, “gaiztoak” alegia. Eta, ezinbestean, horietako batzuk agintarien artean ibiliko dira. “Batzuk” izan beharrean gehienak direnean, soziedadearen porrota dator, erabateko ustelkeria. Egun biztanle gehienon errezeloa horixe da: gure buruzagi gehienak (ez bakarrik politikoak, baita erlijioso eta intelektual asko ere) ez direla zuzenak, txorizo galantak baizik.

Horrekin batera, iruditzen zaigu ez direla oso bizkorak. Ekonomiaren munduan illusionismo ebaslea egiten duten marrazo frakdunak azkar mugitzen dira eta mundua –unibertsoa laster– dute jokaleku. Gure buruzagiak, berriz, motel eta zatikako ika-mikatan galtzen dira. Biztanle gehienoi iruditzen zaigu ekonomiako lapurren aurrean, erosita ez daudenean, ezinean ibiltzen direla.

* * *

Gaitz hauen aurrean, itxurazko “salbatzaileen” agerpenak txunditu egiten ditu pertsona asko. Iraganeko pentsamoldeetara itzultzea nahiago dute beren buruak ziur sentitzeke. Beste askok, gazteen artean bereziki, kontu publikoetan inplikatzeko ez duela merezi iritziko diote, “bakoitza berera joatea” dela legerik onena.



Enfasia hitzarmen berriak lortzen jarri behar dugu. Denon (gizon edo emakume, zahar edo gazte, etxeko edo etorkin, beltz edo zuri, osasuntsu edo gaixo...) fabore daudenak, gehiegikeriarik onartzen ez duten hitzarmenak, arazo berriei (ingeniartza finantzaria, eutanasia, tankera desberdinetako familiak, genetikaren aurrerapenak, erlijioen eta kulturaren arteko harremanak...) erantzungo dieten hitzarmenak, gure buruzagiek sinesgarritasuna izan dezaten kodeen hitzarmenak. Elkarrekin bizitzearen poza berreskuratzen lagunduko diguten hitzarmenak.

Etorkizunerako hitzarmen on eta aurretakoiak, boteretsuekin tinko eta ahulekin bigun diren hitzarmenak lortzen jarri behar dugu enfasia. *Vascas y vascos*. ■

«
Gure buruzagiak motel
eta zatikako ika-mikatan
galtzen dira. Biztanle gehienoi
iruditzen zaigu ekonomiako
lapurren aurrean, erosita ez
daudenean, ezinean
ibiltzen direla
»

ASTE HONETAKO

zozketa



Urbano Jatetxea

Afaria 2 lagunentzat

Abuztuaren 31, 17
Donostia GIPUZKOA

www.restauranteurbano.com

1



Esait

2 kamiseta transpiragarri
opari

Oiartzun GIPUZKOA

www.esait.org

2



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3



Ekain berri

Ekainberri

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

4



Lurra, zorua bailitzan

Iñaki Petxarroman

3 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2272. Argia)

IRIARTE JAUREGIA

• Miren Arrizabalaga Arrizabalaga (Berritxu)

JORGE OTEIZA FUNDazio MUSEOA

• Txebis Gorritxategi Gorosabel (Ermua)
• Ima Eguen Balanzategi (Elorrio)
• Jose Antonio Zubeldia Gaztañaga (Donostia)

KIROAZ BADAKit

• M^a Angeles Azpiroz Harrizurieta (Barañain)
• Julen Gorostizaga Elu (Arrankudiaga)

IRUÑAKO PLANETARIOA

• Maialen Carpintero Navarro (Eraso)
• Mikel Ayllon Corral (Laudio)
• Sabina Arruabarrena Sukia (Donostia)
• Mikel Leturiaga Gorrotxategi (Zarautz)

INGURU ABENTURA

• Iruñezar Aek Euskaltegia (Iruñea)
• Sabin Etxaburu Arrizabalaga (Ondarroa)
• Iñaki Sagasta Arana (Arrasate)

* Bisitaldiatarako epea: Bi hilabete

beranduegi

ARGIAren albistegia interneten

Beranduegi gatoz, telezaborrak hartu dizu egongela.
Txutxumutxu, pilota partidu, reallity show eta informazio
transgenikoek burmuina kutsatzen dizute.

Bai, guri ere bai.

Horregatik erabaki dugu ARGIA n, astean behin
Internetarako propio pentsatutako telebista saio bat
egitea. Euskarazkoa. Ironikoa. Berritzailea.
Laburra, baino sakona.

Beranduegi... ohiko eruedetan erortzeko.

telebista
saio
berria

Asteartero...

- » elkarriketak
- » blog irakurketa
- » erreportaje sakonak
- » aktualitatearen analisi ironikoa
- » lehiaketa barregarriak
- » ...

www.argia.com

www.beranduegi.tv

